



ARGIA

1936KO GERRAKO HAURRAK

***Baina non zaude zu?
Nor zaren badakizu?***

24-29. orrialdeak

Judith Martinezen
Hautzaroaren
beloa artelana.
Euskal Herriko
35.000 haur
erbesteratu ziren
1936ko Gerran.



**Ura lortzeko
inken teknikak
berreskuratu
dituzte Andeetan**

12 | NET HURBIL



**Burujabetzen eta
herri boterearen
alde egiteko
mugimendu berria**

30 | BAM



**150 urte Maurice
Ravel konpositore
ziburutarra
jaio zela**

44 | MUSIKA

Erosten duzun produktu bakoitzarekin,
ekarpen ekonomikoa egiten diozu
Mbolo Moya Doole elkarteari.
Batez ere Senegaldik etorritako
migratzailez osatutako Bilboko
kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

Jertsea **28€**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLO MOYE DOOLE ELKARTEA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARTELANA: **JUDITH MARTÍNEZ**

Iritziak

- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | ARKAITZ ZARRAGA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | GORKA MENENDEZ

Finkoak

- 38 | KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


44 | **RAVEL JAIO ZELA 150 URTE**

Maurice Ravelen *Bolero*a-k sorrarazi zuen eskandalua berritu du Gorka Pegañarikanok. Sentsualtasunaren ikur bilakatu zenak zineman eta musikan izan zituen oihartzunak ere ekarri ditu. Erreferentziak ederrak, Ziburuko musikariaren haria jarraitu nahi duenarentzat.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Ura erein daiteke, eta inkek bazekiten nola

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | AMAIA PORTUGAL

“Bruselan kazetariak ohituta daude hizkuntzak entzuten, ez diote euskarari arretarik ematen”

Miel A. Elustondo

24 | HISTORIA | 1936KO GERRAKO HAURRAK

Bidaia itxi gabea

Urko Apaolaza

30 | POLITIKA

Herri Mugimendua saretu eta eraginkortzeko tresnak eskaini nahi ditu BAMEk

Lander Arbelaiz

34 | EKONOMIA

Banaketa hurbilagoa mantentzeko borroka

Julen Ugartemendia

48 | KULTURA | GEROTIK GERORA

Pedro Ignacio Barrutiaren Gabonetako ikuskizuna

Gorka Bereziartua


ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel García,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: S5 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

 **iametzta**
ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Ekoedizioaren Institututoko
bazkide da ARGIA

OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara

85

Gezurra badirudi ere, irudia ez dago Tolosako inauterietan eginda. Munduko herrialderik jendetsuenen artean, laugarrenean da, pasa den astean. Kameraz inguratuta, bi gizoni 80 eta 85 zigorrada eman dizkiote bizkarrean. Haien bekatua: gorputzaz elkarrekin gozatzea. Aceh probintzian indarrean dagoen legeriak 200 zartada aurreikusten ditu, besteak beste, ezkondu gabeko pertsonen arteko sexu-harremanak, sexu bereko pertsonen artekoak, alkoholaren kontsumoa/salmenta eta jokoarentzat. Mendebaldeak herrialdeak bonbardatu, inbaditu eta bertakoak sarraskitu dituzte hango herritarrek "muturreko ideologietatik salbatzeko". Espainiako Gobernu "progresistak", aldiz, 2022an adierazi zuenez, "Indonesiarekin historikoki aldebiko harreman ona dugu, balio partekatuetan oinarritua, hala nola demokraziarekiko konpromisoa, nazioarteko zuzenbidea, giza eskubideak eta emakumearen ahalduntzea". Eskuin muturreko hainbat gobernu LGBTlren aurkako gorroto mezuak ofizial egiten ari da. Aurrean inor gutxi dutelako.

 YASUYOSHI CHIBA / AFP

 AXIER LOPEZ







Hamahiru urte eta erdiko kartzela zigorra Mario Lópezentzat

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Auzitik hilabete eta erdira iritsi da epaia: Gernikako saskibaloitrenatzaile ohiak neska adingabeari sexu abusuak era jarraituan egin zizkiola frogatutzat jo du Bizkaiko Lurralde Auzitegiak.

Akusazioak hemezortzi urteko espetxe-zigorra eta fiskalak hamalaukoa eskatu bazuten ere, Bizkaiko Lurralde Auzitegiak hamahiru urte eta sei hilabeteko kartzela-zigorra ipini dio Gernikako emakumezkoen saskibaloitaldeko Mario López entrenatzaileari. Urtarrilaren 14tik 17ra egin zen epaiketa. Lópezen defentsak adierazi zuen entrenatzaile ohiak "kontaktu baimenduak" izan zituela adin txikikoarekin, 13 urteko neskarekin. Gizonezkoak 31 urte zituen orduan.

Era jarraituan gertatu ziren erasoak, hiru urte eta erdiz; hala salatu zuen emakumeak eta Bizkaiko Lurralde Auzitegiak frogatutzat eman du. Ebazpenaren arabera, 50 aldiz baino gehiagotan elkartu zen neskarekin, eta "era guztietako erasoak" egin zizkion, maiztasuna eta intentsitatea handitzen joanda. Epaiaren arabera, adin nagusitasunaren botere posizioz baliatu zen erasotzailea, emakumearen zaurgarritasunaz aprobetxatuta.

Hamahiru urte eta erdiko espetxe-zigorraz gain, saskibaloitrenatzaile izateko bost urteko debekua ezarri dio epaileak, baita biktimarekiko urruntze agindua eta 80.000 euroko kalte ordainak ere.

SARE FEMINISTA: "BERMEAK NAHI DITUGU"

Gernikako Sare Feministak ontzat eman du epaia: "Beti esan dugu epaitegietan ebazten zena ebazten zela, guk erasotua sinesten dugula eta berarekin gaudela. Baita ere justizia feminista baten alde gaudela, bermeak nahi ditugula eta, nahiz eta zigor punitibisten alde ez gauden, Lopez entrenatzaile roletik zein herritik at izatea berme bat bada, behintzat ume eta emakumeontzat".

Biktimari prozesuan zehar eman zaion babesa ere nabarmendu dute, eta aurrez izandako hainbat mobilizazio aipatu dituzte, tartean 2023ko abenduko "lehen manifestazio jendetsua" eta 2024an buruturiko atxikimendu eta babes kanpaina. Auzia egin zenean berriz, elkarretaratzea egin zuten epaitegi aurrean, biktimari babesa adierazteko eta horrelako egun "garrantzitsu eta zaurgarri" batean herriaren babesa jasotzea merezi zuelako. ●

Sexu abusuen biktimei kalte-ordaina emango die Iruñeko Artzapezpikutzak

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Elizak 23 kasu ditu onarturik Nafarroa Garaian. Haiek "ekonomiko-ki, psikologikoki eta espirituaiki laguntzeko" konpromisoa adierazi du Iruñeko artzapezpikuak.

Duela urtebete heldu zen Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako apezpiku kargura Florencio Roselló. Ardurak hartu zituen ekitaldiaren ingurumarian, Prisa komunikazio talde espainiarrari emandako elkarrizketan barrena eskatu zuen, "bihotz-bihotzez eta itxura ona ez emateagatik", Nafarroa Garaian ezagutarazi ziren Elizako sexu abusu kasu batzuen harira. "Maila guztietako erreparazioa" emateko konpromisoa adierazi zu Rosellók, batzuk laguntza "psikologikoa" eta "espirituala" beharko zutelako, eta beste batzuk, aldiz, kalte-ordaina.

EFE albiste agentziak otsailaren 28an argitaratu du Rosellóri egindako elkarrizketa. Kargu hartze ekitaldian esandakoa berresten duela adierazi du, "jakitun izanik kasu guztiak preskribatuta daudela". Alegia, judizialki ez dagoela "inolako ibilbiderik", artzapezpikuaren esanetan, baina "konpromiso morala" duela Elizak, inizatiba propioa Rosellók berak, "biktimei aitortza egiteko".

23 ABUSU KASU

Guztira, elizbarrutietan eta kongregazioetan, 23 abusu kasu onartu dituzte Nafarroa Garaian. Horiei kalte-ordaina ordainduko diete. Erasotzailea apaiza zen kasuetan, ordaintzeko ardura artzapezpikutzak hartuko du, eta Elizaren funtsetatik egingo da; eta erasotzailea "erlijioso" zen aldietan, berriz, kongregazioek hartuko dute ordaintzeko ardura. Ez dute zehaztu noiz egingo diren kalte-ordainen pagatzeak, eta ez dituzte zenbatekoak finkatu ere egin. "Zuzenbide Penalean ezarritakoaren arabera kalkulatu dira", Rosellóren arabera. ●

MELOI SALTZAILEA

toXic



JUNE FERNANDEZ

Ortutik itzuli berritan erabaki nuen Twitterretik alde egitea, oraindik Twitter zenean. Auzolan batera joan nintzen, brokoliak eta azaloreak landatzera, eta *mindfulness* efektua zapuztu zidan algoritmoak, idazle feminista transgorrotatzaille baten txioak jaurtitzearekin tematua.

Soro komunitarioko kide berri, bizipoz itzela ematen zidan unibertso birtualeko ika-miken ordeztelako buruhauste terrenalak edukitzea, hala nola zer egin errekan hilda agertu zitzaigun orkatzarekin.

Geroztik ez dut Twitterren falta sumatu, akaso drogaz aldatu nuelako. Ducados zigarroak baziren Twitter, banilla zaporedun bapeatzaillea da Instagram.

Gogora ekartzen dut beti Irantzu Varelaren argazki batek –ohean belauniko, biluzik, *satisfyer*-a begi-bistan– bi sare sozialetan eragindako erreakzioen arteko aldea: “Put! Lodia!” Twitterren vs. “Jainkosa! Erregina!” Instagramen. Agur *hooligan* mozkorrek, ongi etorri MDMAren paradisura.

Goxo ekin nion *selfie*kin eta katuen, maitaleen eta alabaren (*emoji* aurpegian) irudiekin trafikatzan, dopamina ziztada bila; idatzizko gogoeta baten koartada medio, idazlea bainaiz.

Lasaitua hartu nuen Elon Muskek Twitter erosi eta X bihurtu zuenean, Titanic-erako txartela erosi eta senak azken aurreko geroalekuan jaiste agindu banindu lez. Are gehiago nazi keinua egin zuenean. Zuckerbergekek gorroto diskurtsoak onartuko dituela iragarri zuen jarraian, baina ez al da Instagram gorrotorik gabeko bihotzen paradisua?

Hori bai, bestondo latza dakar dopaminak. Saguaro iragarki faltsu baten amua irentsi eta 30 euro lapurtu zizkidaten behin. Afalostean liburu bat irakurri ordezt, gaua *scroll* egiten joaten zait maiz. Prokastinazioaren kontrako *app* baten iragarkiak depresioa diagnostikatu berri dit.

Bluesky instalatu dut baina nikotina txikle baten zaporea hartu diot.

ARGIA: “TikTok, X eta Instagrameko algoritmoek eskuin muturreko edukiak nabarmen hedatzen dituztela frogatu dute”. Deigarria egin zait “sare sozial toxiko” esapidea irakurtzea. Noiz bihurtu ziren zehazki toxiko Arabiar Udaberria eta M-15aren tresnak? Ziur Marta G. Francoren *Las redes son nuestras* saiakeran (Consonni argitaletxea) topatu dezakedala erantzuna baina, esan bezala, idazle yonki honek gutxi irakurtzen du azken boladan. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Desgaia gai



ULA IRURETAGOIENA

Desgaitasun fisikoa duen arkitekto baten alabaren etxea bisitatu ondoren idazten dut honako hau.

Desgaitasun fisikoa duen pertsonen taldeek ez dute arkitektoa maite, beraien bizitza zailtzen duen gaizkile bat kontsideratzen baitute. Gorrotoa ulerkorra da: arkitektoaren lanak sortzen ditu gurgil aulkiaekin bidea zailtzen duten koskak, desnibelen ezintasun egoerak axola gabe. Bestaldean, arkitektoen bulegoetan, irisgarritasun unibertuala babesten duen araudia madarikatzen dute paisaia bat birrinduta gelditzen denean gehiegizko arrapala eta baranda artefaktu baten kokapenarekin. Desgai fisikoen eskubide aldarrikapena espazio oro irisgarri egitea da, lekuko baldintzek diskriminaziorik eragin gabe. Ez da erraza datorrena idaztea, baina segur aski gaizki-ulertzea zerak eragiten du: gorputzen gaitasun desberdinak aintzat hartu behar diren bezala, tokien ezaugarri desberdinak ere kontuan hartu behar dira, eta batez ere, desgaitasunari buelta eman eta gaitasun espazial gisa kontsideratu behar dira.

Desberdin direnentzako espazio desberdinak (eta askotan, ezberdinak) egitea baino interesgarriagoa iruditzen zait espazio erakargarriak egitea ezaugarri bereziekin. Adibidez, komun egokitu bat handiegia dela iruditu beharrean, desgaitasun fisikoen neurri zabala interesgarritzat har daiteke, handitasuna izan dadin egoteko espazio bat eta komun-egongela kontzeptua sortzeko.

Desberdin direnentzako espazioetan ortopedia itxurak agintzen du beti, desgaitasunaren funtzionaltasun beharra desinuari gailentzen zaionean estetikal lekuri topatuko ez balu bezala. Materialtasuna, koloreak, objektuen neurriak, denak estetika behartu bat osatzen du, eta identifikagarri egiten du desgaitasunaren objektua dela. Ez dakit lagungarria den.

Arkitektoek lan esparru zoragarria dute desgai direnentzako espazioak edertzen, eta horretarako desberdin direnen beharrei erantzun behar zaie ezinbestean, arkitektura espazio desberdinak egiteko abagune gisa ulertuta. ●



NRT

Karbonoa ez da neutroa

LEIRE ARTOLA ARIN

Agintari gutxik aitortzen dute publikoki, disimulurik eta konplexurik gabe, multinazional kutsatzaileen alde daudela. Nahiago izaten dute enpresa horien aurpegi berdea babestu, “planetaren alde” lan egiten ari direla harro azpimarratu, eta kutsadura eta marroiz zikindutakoa alfonbra azpian ezkutatu. Enpresa erraldoiek defendatzen dute eurak ez direla klima aldaketaren ardura-dun, atmosferari egindako kaltea erreparatzen dutelako. “Karbono neutroa” izatea bogan dago, eta isuritako karbono dioxido tonak konpentsatzeko zuhaitzak landatzea ere bai.

Zertarako aldatu praktika kaltegarriak, karbono kredituak erosi baditzakete, irudi berdea garbi mantentzeko. Halaxe egiten dute Netflix, Meta edota British Airways bezalako multinazionalak: eurek isurtzen dutena beste batzuek xurgatu dezaten eskatzen dute, nazioarteko legedia errespetatzen dutela esateko. Horretarako, karbono kredituak erosten dizkiote, besteak beste, Kenyako Northern Rangelands Trust (NRT) proiektuari. NRTn elkartu ziren bazkideei –USAIDek eta Europako Batasunak ere finantzatzen dute– ideia bikain hau otu zitzaizen klima aldaketa geldiarazteko: Kenyako abeltzain indigenen jarduera kontrolatzen dute, eta ondorioz, inguruko landaredia ugaritzen da, eta beraz, lurrian karbono gehiago jasotzen da. “Lur bidez karbonoa ezabatzen duen munduko proiekturik handiena” dela diote.

Baliabideak espoliatzeaz gain, Mendebaldeak zaborra eta kutsadura ere Hego Globalaren esku utzi ditu. Abdullahi Hajj Gonjobe borana herri indigenako abeltzainak salatu du “kontserbazioaren” izenean Kenyako lurretara doazen enpresak euren interesen alde soilik ari direla, eta herritarrek zapalduta, proiektutik kanpo eta isolatuta utzi dituztela. Kexak baieztatu ditu orain Ingurumenaren eta Lurren Isiolo-ko Auzitegiak, kaltetutako komunitateetako 165 pertsonak ezarritako salaketa ebatzita: konstituzioz kanpo eta oinarri juridikorik gabe ezarri ziren NRTren proiektuak bi eremu handienak. Gainera, sententziak agindu du NRTko lurren zaindariak eremutik joan behar direla, izan ere, herritarrek hainbatetan salatu dute pertsona armatu horiek jatorrizko herritarren eskubideak urratu dituztela.

Survival International antolakundeak urteak daramatza NRTren gehiegikerien berri ematen, eta Caroline Pearce zuzendariak sententzia jakindakoan ziurtatu du ez dela arazo isolatua: “Karbono konpentsazioko proiektu gehienek eredu zaharkitu bera jarraitzen dute: lurra ‘babesten’ dutela baieztatzen dute, eta birtartean lur horien jabe indigenen eskubideak zapaltzen dituzte; prozesuan onura ederrak jasotzen dituzte”.

Argi geratzen ari da “karbono neutroa” izatea ez dela soluzioa, ezta berotegi efektua murrizteko erreminta ere. Multinazionalak herritarren kontura dirutza irabazten jarraitzeko trikimailua da; berdez margotu dute, baina kirats berbera dario. ●

60

lan proiektatu dituzte Iruñeko Punto de Vista zinema dokumentalaren jaialdian. Maddi Barber eta Marina Lameiro nafarren *Cambium* dokumentala lehiatu da Sail Ofizialean. José Luis Sepúlveda eta Carolina Adriazolaren *Cuadro Negro* txiletarrak irabazi du film onenaren saria.

%164-ko

gainkostua dute Donostiako metroko Mirakontxa-Easo zatiaren lanek, Satorralaia plataformak salatu duenez. Zati horren obrak 53 milioi eurotan esleitu ziren, eta egungo aurrekontua 139,4 milioi eurokoa da.

642

preso palestinar askatu ditu Israelek, adostutakoa baino beranduago. Hamasek berriz, 4 gatiburen gorpuak itzuli ditu. Horrela, Gazarako su-etenaren lehen faserako adostutako preso truke guztiak gauzatu dituzte.

“AHTaren lotunea Gasteiztik egin ezean, ez da egingo”

RAMÓN ALZORRIZ

Nafarroako PSNren bozeramaileak adierazi du Ezkioko lotunea ez dela “bideragarria ez fisikoki, ez ekonomiko ez ingurugiroari dagokionez”.

2025-02-25



“ERTZAIN EKAKUMEA OSASUN ZENTRORA ERAMAN BEHARREAN ERTZAIN-ETXERA ERAMATEA AKATSA IZAN ZEN”

BINGEN ZUPIRIA

Segurtasun sailburuak ukatu egin du ertzainek “indarra modu desegokian” erabili zutenik Karen Daniela Ágredoren aurka.

2025-02-26

“Kartzeletan euskal preso politikoak mantentzeko estrategiak ez du inolako zentzurik”

IRATXEREN BIDASOALDEKO LAGUNAK

Iratxe Sorzabal preso politiko irundarra absolbitzeko eta “behingoz etxera ekartzeko” eskatu dute. Jasan zituen torturak ere salatu dituzte.

ANGULA BERRIA (2025-02-23)



Hildakoen txatbotak



DIANA FRANCO EGUREN

Iragana ulertzen saiatzen eta etorkizuna bideratzen, oraina joaten zaigu zenbaiti. Nire proiektuetako bat (hasi baina landu ez dudana oraindik) dudana zuhaitz genealogikoa egitea da. Horretan lagunduko didan liburuxka bat ere erosi nuen. Baina, hain da handia lana, liburuxkoa apalean dudala, hautsa hartzen. Nire familiaren genealogiak adar asko ditu, migrazio historia ugari, gutxi dokumentatuta... Hori bai, arbasoen inguruan informazioa aurkitzeko zenbait webgune aurkitu ditut Euskal Herrian eta Espainiako Estatu mailan. Erregistro zibilak informazioa gordeta dauka 1871 geroztik, pertsonaren jaiotzaren, ezkontzen, heriotzaren informazioarekin. Bilatzen zabilan arbasoaren informazioa 1871 aurretikoa bada, lurralde bakoitzaren elizaren artxibo historikoan bilatu beharko zenuke. Familiakoak estatu barnean migratzaileak izan badira, estutuko estatistika institutuaren webgunean kuxkuxeatu dezakezu abizenen banaketa estatuan; atzerrikik badator, forebears webgunean ikusi daiteke zelan zabaldu den abizen bat munduan. Zure abizena euskalduna bada, horren etimologia eta heraldika aztertzeke Añamendiko webgunean informazio ugari aurkituko duzu. Nahiz eta nire arbasoak pertsona xumeak izan, eta euren bizitzetan gauzarik nabarmenena izan jaio, ezkondu eta hil egin zirela, konexio hori egiteak badu, nigan behintzat, holako xarma bat. Beharbada, holako sentimenduren batek motibatzen ditu hildakoen txatbotak sortzea. Aeon webgunean "Chat bots of the dead" artikulua irakurri dut: hainbatek, hildako senideen izate ohiarekin nolabaiteko harremana mantentzeko, hildakoak bizitzan zehar sortu zuen informazio corpusa (idatzitakoak, audioak, bideoak, marrazturikoak...) baliatuta algoritmoak elikatzen ditu, arbasoen mundu ikuskera, ahotsa, logika errepikatuko lukeen adimen artifizial bat sortzeko bidean.

Genealogiaren helburuetariko bat litzateke memoria modu zorrotzean aztertzea, eta horren bidez iragana hobeto ulertzea. Baina, modu generatiboan bizidunok dugun errealtatearekin harremanetan ikasteko aukera duen hildako baten txatbota memoria litzateke? Beharbada, memoriatik baino, marmuaren ideiatik gertuago egongo ginateke. ●

PKKren desegitea

LANDER ARBELAITZ / ONINTZA IRURETA

Abdullah Öcalan-ek 26 urte daramatza preso Turkiako Imrali uhartean, "erakunde terroristako" buruzagitza egotzita, eta urteak iragan dira bere azken argazkia ikusi zenetik. Joan den astean, argazki berri bat zabaltzeko baimena eman zuen Turkiako Gobernuak. Bertan, PKK-ko buruzagi kurdua ikus daiteke DEM alderdi ezkertiarreko zazpi goi kargudunekin, honek esku artean adierazpen bat duela. Turkiako CNNk zabaldu duen Öcalanen adierazpenean, PKKri bere burua disolbatzeko eskatu dio.

"Indarrez desagerraraztea lortu ez duten edozein komunitate edo alderdi modernok egin ohi duen bezala, kongresua deitu eta hartu zuen erabakiak: talde guztiek armak albo batera utzi behar dituzte eta PKK-k bere burua disolbatu behar du", esan du Öcalanek. "Gizarte demokratiko baten beharra eztabaida ezina da. PKK-k, [Turkiako] Errepublikako insurgentzia eta mugimendu armatu handi eta luzeenak, oinarri soziala eta babesa aurkitu zituen batez ere politika demokratikoaren bidez itxita zeudelako", adierazi du. Egocera hori aldatu dela eta armak uzteko baldintzak badaudela dio buruzagi historikoak.

Kurdistango Rudaw agentziak nabarmendu duenez, azken hilabetean DEM alderdia Ankara eta PKKren

arteak bake elkarriketak bultzatzen saiatu da. Öcalanek eta Turkiako Gobernuak joan den urte amaieran abiatu zituzten bake negoziazioak eta Turkiako eskuin muturreko alderdiko buru Devlet Bahçelik eman zuen horren berri, zenbait eskaintza egitearekin batera.

Jarrera aldaketa hau etorri da Erdoganek DEM behar duenean, konstituzioan erreforma bat egiteko. DEMek bere aldetik presio egiten jarraitzen du Turkiako Gobernuak kurdien eskubideak errespetatu ditzan. Kurduak Turkiako herritarren %20 dira.

PKK-REN ERANTZUNA

Öcalan buruzagiaren deia erabateko babesa eman dio PKKk. Hala ere, azpimarratu du arrakasta izateko, marko politiko eta legal demokratikoek egokiak izan behar dutela. Berehalako suetena deklaratu du PKKk, eta erasorik ez badute jasaten, ekintza armatuetan ez dutela parte hartuko gehitu du. Borrokaren beste garai bat hasiko dela dio PKKk, Öcalanen lidergoan, eta bakearen eta gizarte demokratikoaren aldeko deia gauzatzeko beharrezkotzat jo dute Öcalan askatzea. Adierazpena ez dute bide baten bukaeratzat, baizik eta hasieratzat: "Hau da garaia argiki eta erabakitasunez 35 urtean, eta bereziki azken 20 urteetan, lortu ez duguna aurrera eramateko". ●



Memoria bala bat da buruan

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

1 976ko martxoaren 3an, Gasteizen, Poliziak ehunka tiro egin zituen asanbladan bildutako jendetzaren aurka, zabalduz eta erradikalizatuz zihoan greba mugimendua odoletan ito nahian. Bost langile hil zituzten, baina "egun hartan hildakoak gehiago ez izatea ia miraria da", adierazi dio ARGIAri Julen Díaz de Argote historialari eta Martxoak 3 elkarteko kideak, mirari horren froga bat erakustearekin batera:

Sarraskiaren egun hartan buruan tiro egin zion Poliziak bere izena anonimatuan mantentzea nahiago duen herritar bati, eta Santiago ospitalera eraman zuten:

"Sarrera zuloa ezkerreko masailean eta jaurtigaia lepoko pakete baskular-nerbioaren atzealdearen ezkerrean kokatuta, lepaornoan errebotatu osten hura apurtu gabe. Ebakuntzaren emaitza ona izan da. Pronostiko larria. Traumatologiako ZUI 1ean ingresatuta geratzen da"

Hala dio J.A. de Apraiz medikuaren txostenak. Medikak berak entregatu zion orri bakarreko txostena zaurituari: orriak burutik ateratako bala zuen zeloz itsatsita.

49 urtez gordeta izan eta gero, zaurituak dokumentu hori entregatu dio Martxoak 3 elkarteari, sarraskiaren lekuko izan zen San Frantzisko elizan eraikitzekoa den Memoriagunean tokia izan dezan. ●



MOTZEAN

Mendizale batek otsoa ikusi du Lapurdiko Azkaine herrian, eta hala baieztatu du Pirinio Atlantikoetako Prefeturak. ELB sindikatuak ohartarazi du otsoa etortzeak "ondorio larriak" dituela, "kanpoko hazkuntza arriskuan" jartzen duela eta laborantzaren "industrializazio fenomenoaz azkartzen".

Famili'on egonaldi ibiltariaren lehen edizioa aurkeztu dute Baionan Plazara, AEK, Uda Leku, Dindaia eta Ebete antolakundek. Hizkuntza mailaren arabera eskaintza bat edo beste egongo da haur zein gurasoentzat, udaberrian. Euskara barnetegi moldea eta euskara ikastaldi moldea izango dute.

Azken urteetan Bilbon kultur zerbitzu publikoak pribatizatzekeo prozesu bat abian dagoela ohartarazi du Bilboko Liburuzainen kolektiboak. Alondegia eta Esperantza pilotalekua jarri dituzte adibide gisa. Horren ondorioz ohartarazi eta gogoeta partekatua bideratu nahi dute orain, herritarren artean.

Miopia gero eta gehiago ari da garatzen haurtzaroan, eta horren arriskua da dioptriak gehitzen joatea eta helduaroan begiari lotutako hainbat gaitz izateko aukerak dezente handitzea. Gomendioak: eguzki-argia jasotzea, eta denbora asko ez igarotzea oso gertu dagoen zerbaiti begira.

URA EREIN DAITEKE, ETA INKEK BAZEKITEN NOLA

Andeetako Altiplanoan, *qocha* deituriko aintzirak sortzen hasi dira inken antzinako teknikak erabilita, aldaketa klimatikoari eta sikateei aurre egiteko. Ura “erein eta uztatzea” esaten diote: ura lurrean infiltratzen da eta horrek bizia ekartzen dio inguruari.

Peruko Jauja eskualdean, Masajcancha komunitatean, César Dávila ingeniariak 25 urte daramatza zeregin horretan. Dávila lortu du basamortua besterik ez zen lur puska batean bertako landaretza berreskuratzea eta labore zein larreak ugartzea.

 URKO APAOLAZA AVILA

Jaka brodatuak eta kapelu koloretsuak soinean, jauzi eta brinko hasi dira dantzariak jostari. Ez da maskarada baten barrikada, ez dira larduiak porreroak, baina erritualak badu zerikusirik natura esnatzearekin eta aldarrikapenarekin, inauteriek duten gisan. Perun, Andeetako glaziarren oinean, *Yaku Raymi* ospatzen dute urtero, “uraren festa”, kitxueraz. Guraize berezi batzuk eskuan dituztela, jantzi tradizionalak aireratzen dituzte hango txirula eta biolinen doinupean, eta *Apu* edo mendietako jainkoei opariak eskaintzen dizkiete, euria eta ura ekar dezaten. Egun horretan, gainera, herritarrek ubideak garbitzen dituzte auzolanean.

Halako festa bat antolatu dute martxoaren 21ean Peruko Jauja eskualdean dagoen Masajcanchako komunitatean, Uraren Nazioarteko Eguna dela eta. Kopapena ez da ausazkoa, Limatik ekialdera hainbat zienta kilometrorra dagoen muino malkartsu horretan esperimentu arrakastatsu bat martxan baitago duela 25 urtetik hona: inken garaian eta haien aurretik existitzen ziren *qocha* aintzira naturalak berreskuratu dituzte presa xume batzuekin, biltegirotutako ura lurrean infiltratu eta urte osoan izan dezaten, nola nekazariak laboreetarako hala abereek bazkatzeko larreetarako.

Masajcanchan bertako basoz berdetu da ingurua, eta “txoritxoaren soina entzun daiteke orain”, dio pozik proiektua-

ren arima den César Dávila ingeniariak, sare sozialetan milaka jarraitzaile dituen Francisco Arangoa komunikatzaileak *Musuc Pacha* izeneko kanalean paratutako *Milagro en los Andes* (Miraria Andeetan) bideo-elkarrizketan. Ura “erein eta uztatzea” esaten diote antzinako teknika horri, eta horregatik jarri diote han sorturiko etxaldeari *La cosecha del futuro* (Etorkizuneko uza) izena. Ura, bizitza eta etorkizuna da Andeetako sinesmen zaharretan; ez alferrik duela bost mende Inken zibilizazioak azpiegitura hidrauliko konplexuak eraiki zituen *Pachama-ma*-rekin eta naturarekin sinbiosian.

Harrigarriena da, orain, zibilizazio oso baten jakinduria ezpatan pasa zuen pertsona bera laudatu dutela ahalkerik gabe Peruko hiriburuan. Limako alkate ultraeskuindar Rafael López Aliagaren iduriko, Francisco Pizarro espainiar konkistatzailea ez zen genozida bat izan, eta bere eskultura berrezarri du 2003an kendu zuten toki berean. Errekonkista hasi da. Horretarako gonbidatu hoberik ezin zuen aukeratu gainera: Isabel Díaz Ayuso Madrilgo erkidegoko presidentea. “Gure historia konpartitua errespetatzeko beste urrats bat da honakoa”, esan zuen PPko agintariak berrezartzeko ekitaldian.

Mexikoko *La Jornada* egunkari ezker-tiarak editorial gogorra kaleratu zuen urtarilaren 19ko zenbakian, *Peru: de Pizarro a Ayuso* (Peru: Pizarrotik Ayusora) izenburuarekin, konkistatzailearen –eta

bere jarraitzaile ultren– itzuleraren hari-ra: “Errebisionismo arrazistaren aurrean, beharrezkoa da behin eta berriz esatea ez dagoela historia konpartiturik, espainiarrek, jakinduriaren arteko elkarrizketa bat hasi beharrean, ehundaka kultura suntsitu zituztelako beraiena inposatzeko”, dio.

Horretaz guztiz konbentziturik ez dagoenak, hala ere, nahikoa du Éric Vuillard idazle frantziarraren *Conquistadors* eleberria irakurtzea –orain gaztelaniaz ere bai–, zeinean Pizarrok 1532an Cajamarcan Atahualpa nola harrapatu zuen deskribatzen duen, literatura nahiko *gore* bat erabilia: “Tronua bizkarrean zeramatenak Pizarroren oinetara jaurti ziren, eta ez ziren defendatu ezpatak euren haragian hondoratu zirenean...”, leitu daiteke.

JAKINTZA PARTEKATZEA

Zergatik aipatzen dugu Ayusoren kontu hori? Pizarroren eskultura txalotzeaz gain, ura kudeatzeko informatika sistema “aurreratu” bat esportatzera ere joan delako Madrilgo presidentea Limara. Beraz, orain metropolitik software baten bidez esango diete perutarrei nola edo zertan erabili behar duten ura; utikan milaka urtetan pilatutako bertako jakintza.

Dávilari ez diote ziri hori sartuko baina. Unibertsitate ikasketak amaitu zituenean, ikusi zuen Masajcanchako bere komunitatea pelean zebilela ondoko komunitateekin iturri batengatik. Eta gatazka horri aterabidea bilatu nahirik, konturatu zuen



SIERRA AZUL

Andeetan antzintatik gizakiak egindako ur biltegiak dira qocha-k. Teknika horren bidez ura lurrean infiltratzen da pixkanaka, eta inguruko larre zein laboreei mesede egiten die urte osoan.

Andeetako toki askotan oraindik antzina-nako teknologiak erabiltzen zituztela ura kontserbatzeko. Horrela ekin zion lehen *qocha* berreskuratzeari 1999an. Gaur egun bere etxaldean sei *qocha* dituzte, eta laku horien ingurumarian landaretza eta fauna anitza garatu da.


“Euria zerutik dator, eta ikusi behar da inkek nola biltegitratzen zuten ura. Gure arbasoek eraikitzen zituzten mikro-gordailu horiei esker, lehen ur tanta bat ez genuen tokian orain urte osoan daukagu”, azaldu dio Dávilak kameraren atzean dagoen elkarrizketatzaileari. Goi-ordokian dauden *qocha* horien ondoan bofedalak sortzen dira –urezko “koltxoi” antzeko batzuk dituzten ekosistemak– eta beherago dauden lurak berehala hasten dira nabaritzen uraren infiltrazioaren onurak.

Baina teknika zaharrak berriagoe-kin ere uztartu ditu ingeniariak. Esaterako, labore desberdinak ondoan jarri eta errotatzea –agro-bioaniztasuna mantentzeko–, edo aintziraren bazterrak basoberritzea. Jadanik bertako 105.000 zuhaixka eta landare espezie aldatu dituzte: “Horietako batzuek hostoetan iletxoak dituzte eta goizeko ihintza edo basura harrapatzen dute, horregatik *ur ereileak* ere deitzen zaie”. Dohain hori duten bost espezie soilik daudela dio gure lagunak: quinal (*Polylepis*), qolle (*Buddleja coriacea*), Andeetako haltza (*Alnus acuminata*), quishuar (*Buddleja incana*) eta chachacomo (*Escallonia resinosa*). Beste landare batzuek, berriz, lurpean den ura “deitu” eta garbitu egiten dute, putacca (*Rumex peruvianus*) edo “uraren landarea” kasu.

Horietako batzuek esanahi berezia dute andetar kulturen, eta galzorian daude.

Masajcanchako esperientziak erakutsi du zer garrantzia duten uraren zikloa berreskuratzen duten ekimenek Andeetan, sikateen eta glaziarren urteza medio, klima larrialdia munduan gehien eragiten ari den tokietako batean. “Politika publikoek halakoak sustatu beharko lituzkete, inbertitzen eta komunitateak antolatzen”, dio Dávilak irmo.

Hain justu, lorratz orri jarraituta, Peruko Gobernuaren Nekazaritza Garapenerako Ministerioak *Sierra Azul* programa jarri du abian, eta diru-funts baten bidez 220 *qocha* baino gehiago berreskuratu dituzte jadanik Ayacucho, Puno, Huancavelica eta Lambayeque eskualdeetan. Hori bai da historia eta jakintza partekatzea. ●





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Amaia Portugal

ENTZULE PRIBILEGIATUAREN BERRIEMAILE



BRUSELAN KAZETARIAK OSO OHITUTA DAUDE HIZKUNTZA ASKO ENTZUTEN, EZ DIOTE EUSKARARI ARRETARIK EMATEN



Urtea baino gehiago da Olatz Simonek –EITBko berriemailea Parisen, garaian–, orrialde hauetan bertan ohartarazi zigunetik Bruselak kazetariari lanbideaz erakusten dionaz. Eta halaxe joan gatzazkio galdezka Amaia Portugali. Bruselan gure irrati publikoak duen kazetari argia.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Olatz Simoni elkarrizketa (ARGIA, 2810 zk.) egin, eta Bruselari begira jarri gintuen. Han trebatzen da, nonbait, kazetaria. Ez alferrik daude han Europako erakunde nagusiak...

Eta instituzio horien lanak hartzen du gure denbora-tarte ia osoa. Ez dugu beste ezertarako abagunerik. Astelehenan asteko aurreikuspena egiten hasi, eta agenda bete da dugu beti. Asteazkeno, bilera du [Europar] Batzordeak, eta handik beti dator zerbait: izango da erabakia, komunikazio-proposamena, zuzentaraua edo dena delakoa. Kontua da albisteak sortuko dela. Hilean behin, berriz, osoko bilkura izaten du Europar Parlamentuak –batzuetan, hilean bitan ere bai–, eta bateko bozketa, beste de-

bate, beti da zer edo zer. Batzordea, Parlamentua eta, jakina, Kontseilua ditugu, hiru instituzio, bakoitza bere agendarekin. Eta, bestalde, hortxe Luxenburgoko epaitegia ere [Europar Batasuneko Justizia Auzitegia] ere, sententziaren baten inguruko albisteak emanez edo auskalo zer... Etengabe datoz albisteak!

Duela bost urte hasi zinen Bruselako lanean...

2020ko irailean, pandemia garaian. Bigarren olatuak harrapatu ninduen... Hori ez zen hain instituzionala izan. Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan ari nintzen, gaueko txandan, eta ordu arte Bruselako berriemaile zenak, [Mikel] Rotaetxek, handik alde giteko erabakia hartu zuen.

Orduan, ohi denez, irratiaren deialdia egin zuten, eta neure burua aurkeztu nuen.

Zerk bultzatu zintuen pausoa ematera?

Bada arrazoi bat. Kazetari karrera bukatu berritan, Europar Parlamentuaren Robert Schumann beka-deialdira jo nuen. Parlamentuak bulegoak ditu Bruselan, Estrasburgon, eta 27 estatukideetako hiriburu guztietan. Beka horretarako izena eman, eta ez nuen lortu. Hurrengoan, berriz eskatu, eta Edinburgora joateko beka jaso nuen. Jakina, hango bulegoa itxi egin zuten *Brexit*-a eta gero... Europar Parlamentuaz askorik ez banekien ere, interesgarria izan zitekeela iruditzen zitzaidan. Han lan egin eta,



Amaia Portugal Gonzalez

DONOSTIA, 1984



Kazetaritza ikasketak Leioan (EHU) egina, EITB irratietako berriemai-le da Bruselan 2020ko pandemiaz gero. Orogen buru, Euskadi Irratik albigtegieta aditzen dugu haren ahotsa, albiste trinkoak labur, zehatz eta argi ematen, arreta emateraino. Ikasiak ikasiagatik ere, egunero ari da gehiago ikasten, eta, horrez den bezainbatean, pribilegiatutzat jo du bere burua. Pribilegiatuagoak gu, Amaia Portugalek transmititzen diz-kigun albisteen entzuleok.

hurrena, Bruselara joateko aukerarik izango ote nuen pentsatzen hasi nintzen, Jaurilaritzaren bulegora. Baina ez nuen lortu, eta Euskal Herrira itzuli, eta bestelako bide bat egin nuen.

Zure bidean, Irutxuloko Hitza, Edinburgoko garaia, Elhuyar, Berria, Gaindegia, Radio Vitoria eta Euskadi Irratia ageri dira...

Bai, eta lehen aldi hartatik hamar urtera, *Faktoria*-n ari nintzela, “eta zergatik ez?”, pentsatu nuen. Eta etorri nintzen Bruselara. Ez gustatuz gero, banekien irratiko lanera itzul nintzekeela, lan-poltsara besterik ez bazen ere.

Bost urte egin dituzu hemen, kazetariak albisteak labur eta trinko ematen ikasten duen tokian, Olatz Simonek aditzera eman zigunez. Europar erakundeent diktatura, beharbada.

Tarte handirik ez du ematen besterik egiteko. Batzuk, bai, moldatzen dira, asteburuan ere lan eginez! Kar-kar... Bestela, gure kasuan, bateko Euskadi Irratian, besteko Radio Euskadin, buletinetan albisteak eman beharra dugu, eta europar instituzioek hartzen digute denbora osoa. Bestelako gairik noiz landu? Albistegietan aukerarik ez da eta, hortaz, izatekotan, beste saioaren batean beharko genuke, *Faktoria*-ko tertuliaren tartean edo *Baipasa*-n, adibidez. Ezin diegu goizeko nahiz arratsaldeko albistegiei ihes egin. Haiei segitu beharra daukagu. Beste gairik landu nahiko banu, ordu gehiago eman beharko nituzke lanean, eta asteburuetan ere lan egin.

Euskaraz lan egitetik, gaztelaniaz ere jardutera igaro zara, nagusiki ingelesez eta frantsesez ari diren europar erakundeetan. Etengabe euskarara itzultzen ibili behar, ala? Bai, bada! Baina kazetari euskalduna beti da itzultzailea. Behin, Macroni bat-batean bururatu zitzaion halako zera bat eratu behar zutela, *European Political Community*. Ingelesez esan zuela uste dut. Beharbada, frantsesez esan zuen... Momentuan sortu zitzaidan galdera: “Eta hau euskaraz nola esan behar dut?”. Galdetu irratiko lankideei hemen, eta hortxe ibili ginen, elkargo, erkidego... hitz ego-kia erabaki ezinik. Halako egoeran, nola lan egin? Macronek –edo dena

delakoak–, zera bat esan, eta albisteak berehala kontatu behar izaten dugu. Momentuan momentukoa, ahal den itzulpen txukunena egin, eta albisteak eman! Gero etorriko da, denbora dena, Euskara Zerbitzuan galdetzea.

Europar Batasunaren erakundeetan ingelesak frantsesari gaina hartu omen dio, erabat.

Hizkuntza saltsa handia dago Bruselan. Bai europar erakundeetan, eta bai hirian bertan ere. Esaterako, Ursula Von der Leyenek berak ez du frantsesez ondo egiten. Ulertzen du, baina ez zaio gustatzen jendaurrean frantsesez hitz egitea. Iruditzen zait ez duela bere burua seguru ikusten. Eta Bruselan jaioa da! Aita europar erakundeent inguruan ibili zen lanean. Eta instituzioetan lan egiten duten askok –Batzordeko bozeramaile askok, adibidez–, askoz ere hobeto egiten dute ingelesez frantsesez baino. Brusela ez da hiri ohikoa, zentzu askotan. Ingelesa oso zabalduta dago hirian –“europar burbuila” esaten diote europar erakundeak dauden Bruselako auzoari–, eta, bestalde, flamenkoen eta waloien arteko gatazkaren erdian harrapatuta dago. Are, flamenkoak eta waloiak ere, askotan, bata besteari ingelesez hasten zaizkio.

“Europar burbuila” esan duzu...

EU Buble (Europar Batasunaren Burbuila) esaten diote. Bruseldarrek ere halaxe esaten diote, nahiko errekur-rentea da entzutea: “Horiek ‘hor’ bizi dira”. Toki berezia da. Ni, eskerrak, ez naiz delako europar auzo horretan bizi. Aurreko berriemaileak esan zidan: “Ez bizi europar auzoan, bestela ez duzu-eta deskonektatuko. Gainera, asteburuan ez dago ezer, auzoa hilda dago”. Kasu egin nion, eta ez naiz damutzen. Hiriaren erdialdetik gertuago bizi naiz, eta horrek bestelako mundu bat ikusteko eta bizitzeko aukera eskaini dit. Nik esango nuke europar auzoko lanean ari dena, oro har, Bruselari bizkar emanda bizi dela. Gainerakoan, Europako beste edozein hiri- ren antza du Bruselak; Parisen antza, esate baterako, neurri handi batean, behintzat: terrazak han eta hemen. Terrazen mundua da Brusela.

Oraintxe ari zara guri erakundeez kanpoko kontuak esaten!

Kar-kar! Aldian behin, irratian ere



tarteren bat egiten dugu, eta Belgikako Gobernuaz hitz egiten dugu, adibidez. Sekulako bu-ruhausteak dituzte herrialdeko gobernu osatzeko. Belgikak Guinness errekorra dauka, gobernu osatu gabeko egunetan. Ohituta daudela ere esango nuke. Gabonetan jardunean zegoen gobernuak zazpi alderdi zituen. Horixe da Belgika. Batetik, hizkuntza saltsa horren auzia dago, eta, bestetik, ideologiak. Baina, jakina, gure entzuleari zenbateraino interesatzen zaio hori? Are

“okerrago: albistegia bete-betea doanean, Belgikaren egoera horrek ez du kabidarik. Kontuok bestelako saioren batean kontatzekoak dira. *Faktoria*-ko tertulian batik bat. Jo dezagun kontatzeko horietara, europar erakundeak bazter utzirik. Belgikan hil zuten Hodei Egiluz 2013an, eta aurkitu zuten gorpua handik hiru urtera... Anberesen. Euskal Herrian nengoen ni garai hartan. Hemengo segurtasunaz

Belgika eta Herbehereak narko-estatuen antza hartzen ari direla zioen Belgikako ministro batek, eta, batez ere, Rotterdam eta Anberesko portuen erruz”

ere zer edo zer kontatu izan dugu inoiz. Esate baterako, Belgikako Gobernuko ministroren batek esana du –ez dira nik asmatutako hitzak–, Belgika eta Herbehereak narko-estatuen antza hartzen ari direla, eta, batez ere, Rotterdam eta Anberesko portuen erruz. Ez nuke esango, hiri segurtasunari dagokionez, arriskua ikaragarria denik, baina bi portu horietan askotan gorabeherak izaten dira. Eta, batik bat, droga tartean denean. Drogarekin trafikatzan duten banden arteko liskarrak, eta abar. Elkarri tiroka eraso egiten diotenean da arriskurik handiena, eta hobe duzu horiek dabil-tzan auzoetan ez ibili. Egia da joan den bi urte honetan tiroen kontu hori ia-ia normalizatu egin dela. Astea behin, horixe izaten da albistea, halako auzoan tiroak izan direla. Ez dira izaten hiria-ren erdialdean ez europar auzoan, baina Bruselan. Azken bizpahiru asteotan, ber-ri, tiroketa mordoa izan da Anderlecht auzoko metro geltoki baten inguruan, eta hildakorik ere izan da.

Auzo jakinak dira beti...

Bai, bada! Hor bistakoa da elitismoa. Ti-roak gertatzen diren tokiak periferia-koak dira. Hala ere, ez dakit bertako bizi-lagunak seguru sentitzen diren, lasai bizi diren, edo nola bizi duten segurtasun zera hori.

40 urteak beteak, oraintxe ari zara zu, lanbideari dagokionean, heldutasunera heltzen, Bruselan, Olatz Simonek...

...Kontraesana da, baina uste dut Bru-selak lan egiteko patxada eman didala. Irratian lan egiteak beti korrika eta pre-saka ibili beharra dakar, eta, batzuetan, oso momentu txarrak pasatzea ere bai, bi irratietako lana koordinatzea ez delako batere erraza. Hasieran, etorri berritan,



Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>



estu eta larri ibiltzen nintzen beti: “Ez naiz iritsiko, ez naiz iritsiko!”. Dena delako berria albistegietan garaiz ematera ez nintzela iritsiko pentsatzen nuen beti. Europar Parlamentuak, edo dena delako erakundeak 11:00etan –baina askoz ere maizago 12:00etan, zoritxarrez!–, erabakiren bat hartu, eta 13:00etan bi irratietan eman beharra neukan albistea! Eta esaten zidaten hemengo erredakzio-tik: “Lasai, Amaia. Ez kezkatu, eta albistea eman”. Eta nik: “Baina nola emango dut, bada, albistea, prozesatzeko astirik ere ez dut izan eta!”.

Eta?

Bada, horixe! Ez naizela iritsiko pentsatuta ere, beti iritsi naizela albistea zabal-tzera. Nolabait, baina iritsi naiz. Horixe ikasi dut Bruselan, arnasa hartzen eta berria ematen. Hala ere, pentsatu nahiko nuke –oso urduri nagoen momentuetan ere, berria ematen ari naizenean ere–, entzuleak ez duela nabaritzen nire aho-tsak salatzen duen urduritasuna. Ni albistea egoera horretan ematen sufritzen egotea da gauza bat, eta beste bat, aldiz, entzulea horretaz ohartzea. Eta ni albistea ematen arrapaladan hasten banaiz, entzulea segituan konturatuko da. Patxadan-edo lan egiten ikasi dut Bruselan. Beti nabil purrustaka neure buruarekin: “Hau desastrea!”, “Hau ere hala moduz aterako da!”, “Beti korrika eta presaka ibili beharra ere!”... Eta, horiek horrela izanda ere, lana betetzera iristen naizela ikasi dut. Ez dakit nola, baina iristen naiz.

Zure barruko estutasun eta larritasun horien berririk ez dugu Euskadi Irratian eguerdiko albistegietan-eta ahotsa aditzen dizugunean...

Pozten naiz! Kar-kar!... Ikasi dut neure

buruarekin konfiantza izaten, neure buruari esaten: “Lasai, Amaia, eutsi nerbioei, albistea ematera iritsiko zara, ez dakit nola, baina iritsiko zara, orain arte ere beti iritsi zarelako!”. Baliteke albisteren bat lehen al-dian hala moduz ematea. “Kristoren akatsa egin dut, halakoren izena oker esan dut!”. Lehen, neure burua zigortzera egiten nuen.

Orain, bestela esaten diot neure buruari: “Ahal duzuna egin duzu. Akatsak egin dituzu, bai, baina albistea bigarren aldiz kontatzean zuzenduko duzu”. Alde horretatik eman dit lasaitasuna Bruselako lanak. Hemengo erredakzio-koek ezetz esango dizute, builaka nabilela beti, ez didatelako nahikoa denbora ematen eta protestan... Baina esan dizut, ez nengoen ohituta bi irratietan aldi berean lan egitera. Horri martxa hartzea ez da erraza.

Nonbait ere, nabarmena da EITB barruan euskarazko medioa, gaztelaniazkoaren lehengusu-lehengusina txikia dela, era guztietara ere. Zer deritzozu?

Ez dakit zenbateraino hitz egin dezakekan horretaz. Kar-kar! Uste dut irratia baduela alde on bat, eta da ez duela telebistak bezainbeste baliabide tekniko behar. Hori esanda, esango nuke Euskadi Irratiaren eta Radio Euskadiren arteko aldea ez dela hainbestekoa, nahiz eta aldea badagoen. Barruan ari garenok ere ikusten dugu hori. Hala ere –eta audientzia datuak dira frogatzen–, Euskadi Irratiak oso datu onak ditu, ez dira Radio Euskadirenak baino askoz apalagoak, eta entzule kopuru potentziala kontuan hartuta, azpimarratzekoa



Euskadi

Irratiak oso datu onak ditu, ez dira Radio Euskadirenak baino askoz apalagoak, eta entzule kopuruaren potentziala kontuan hartuta, azpimarratzekoa da hori”

da hori. Uste dut, beraz, zorionez –“zorionez”, niretzat–, ez dagoela hainbesteko alderik. Telebistaren kasuan, aldiz, bistakoa da zer gertatzen den. Denok ikusten dugu aldea.

Zer diote munduan lau ertzetatik Bruselara joanda lanean ari diren kazetariak gure hizkuntzari buruz?

Espainiarrei, esate baterako, bitxia egiten zaie nola jarduten dugun –zein erraz, zein arin–, oraintxe euskaraz, oraintxe gaztelaniaz. Gainerakoan, nahi beste hizkuntza nahasten dira Bruselan lan egiten dugunon artean. Batzuk Europar Batasuneko herrialdeetako kazetariak dira; beste batzuk, Balkanetakoak; AEBkoak ere badira... Eta, uste nuen, zuk bezala, baten bat jakin-minez galdezka etorriko zitzaidala: “Aizu, zein hizkuntzatan ari zara?”. Baina ez zait inoiz gertatu. Uste dut hemen ari diren kazetari eta langileak oso ohituta daudela diren eta ez diren hizkuntza guztiak entzuten, eta ez diote euskarari arretarik ematen. Anekdotak bat kontatuko dizut...

Bai, bada!

Irlandako gaelikoarena, adibidez. Hizkuntza ofiziala da Europar Batasunean, eta kazetariak aukera du Irlandako komisarioari gaelikoz galdetzeko. Gogoan dut kasu bat, 2022koa. Kazetari irlandarrak, gaeliko hiztunak, ingelesez zuzendu zion galdera Irlandako komisarioari, esanez ingeles hedabide batentzat ari zela. Komisarioak, haatik, gaelikoz hasi zuen erantzuna, hizkuntzaren erabilaren aldarri eginez, nahiz eta gero ingelesez segitu zuen. ●



Gure etxean, gure familian,
gure historian...

betidanik gurekin



50
URTE GUREKIN
LACUNZA



Iritziak

Gure esku dagoena



KARMELO LANDA MENDIBERE
HISTORIALARIA

Otzandu egin gara, katalanak eta euskaldunok, ekaitzaren ondoren. Saiatu ginen, bai; sendo ekin genion, eta gogor kolpatu gaituzte; ezin izan genien gure helburu zuzen, ezinbesteko, sakratuei eutsi. Eta porrotaren mingostasuna dastatu dugu, eta bigundu egin gara irabazleen mende. Horixe da gertatu zaiguna azken urteotan, horixe ari gara ordaintzen orain.

Katalunia maitagarrian, *procés* demokratiko eta itxaropentsu hura Espainako Estatuaren zerbitzuko morroi guztiek jipoitu, kartzelatu eta atzerriratu zutenetik aurrera, zabaldu zen bertan doluaren, damuaren eta depresioaren aro iluna, eta horretan jarraitzen dute. Borreroen eta damutuen arteko aliantza santua, *Generalitat* bereko tronura igota ireki dute doilorkeriaren garai zaharberri hau.

Euskal Herrian, berriz, bertoko telebistako *dokudrama* negar-eragileen bitartez berritzen dizkigute aldi oro gure betirako kondenazio astuna eta gure arrazoi guztien ukazio eternala, noizbait matxinatu eta geurea dena indarrez exijitzen ausartu ginelako. Betiko zigorrean, bazterrean, alde ilunean mantentzeko mehatxua berritzen digute horrela, baldin eta ez bagara beraien aginduetara, beraien politikara, beraien hizkuntzara eta kulturara, beraien gobernantzara, moldatzen.

Eta zer egin behar dugu, katalanek eta euskaldunok, egoera tamalgarri ho-

Bada gurean hedatu den modako pentsamendu otzandua, zeinen arabera gai sozialak diren benetan garrantzizkoak, eta ez horrenbeste gure nortasuna, hizkuntza edo nazioa

netan? Zer da orain gure esku dagoena?

Bada Katalunian miresten dudan pentsalari eta herriko politikari bat, jatorri argentinarra duena, gaztetan familia osoarekin migratu eta Kataluniako bizi-moduan integratu eta guztiz konprometitu dena, gaur egun katalanismo *independente*aren erreferente bihurtu arte. Biografia politiko interesgarria du Albano Dante Fachin adiskideak. Oraintsu sarean zabal hedatu den bideo batean azaltzen du modu miragarrian Kataluniako herritarrek bizi duten *post-procés* egoera hau, nortzuk diren horren errudun nagusiak eta, batez ere, zein den herritarren esku dagoen erantzun zuzen eta egokia.

Bitartean, Euskal Herrian, traumaren osteko moldaketa politikoa gomenda-

tzen digute bertoko alderdi abertzaleek, errealismo berri batera gonbidatuta, eta lehen independentziarako bidea erreklamatzeko zen bozgorailuetan orain federalismoa edo Espainia konfederala goraiatzeko dira, betiere Madrilgo zein Pariseko gobernuak aliatu bezala hartuta, beste okerrago batzuen gobernuak ekiditeko argudioaz. Bitartean, Euskal Herria hainbat zatitan urruntzen da eta Euskadi metonimiko birtual batek hartzen du haren lekua, eta euskara, katalana bezala, atzera-martxan agertzen zaigu geure herri eta kaleetan.


Bada gurean hedatu den modako pentsamendu otzandua, zeinen arabera gai sozialak diren benetan garrantzizkoak, eta horietan zentratu beharra dugun, eta ez eman horrenbesteko garrantzirik gure nortasunari, hizkuntzari edo nazioari, eta silogismo horren harira bere egiten dituzte eta bertan legitimatu estatu zapaltzaileen nortasun, hizkuntza eta kultura inposatuak "naturaltasun osoz". Espainiar edo frantziar derrigorrez bihurtuta aurkituko omen dugu egoera sozial justuagoa. Tamainako faltsukeria intelektuala saldu nahi digute.

Ez da hori bidea. Katalunian bezala, Euskal Herrian ere birdefinitu behar dugu gure esku dagoena. Herri mugimendu zabal, sendo eta sakona abiatu behar dugu, bai euskara nagusituta, bai euskal politika gure nazioaren eraketa demokratikorantz abiatuta. Hori guztia egiteko gauza garelako euskaldunok. ●

Elebitasunaren tranpa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Auzitan jar ez daitekeen baieztapen orokor eta eztabaida ezinaren gisan saldu digute hizkuntzak jakitea printzipioz ona dela, baina baditu bere "ñabardurak", edo esanahi ezkutuagokoak. Hemengo ustezko *elebitasun* kontzeptuaren azpian dagoen baina kamuflatzen den errealitateagatik, hain zuzen ere. Bai, oso tranpatia eta arriskutsua da elebitasunaren kontzeptua, ea ongi azaltzen dudan.

Hasteko, euskaldun guztiak gara elebidunak, denok dakigu-eta espainola edota frantsesa -baita halabeharrez jakin ere-, baina elebakarrak dira espainolez ala frantsesez baino ez dakitenak. Elebitasuna hain gauza ona baldin bada, zergatik ez dute ikasten? Euskaldunontzat baka-rik al da ona?

Ez, kontua da ez dela elebitasuna, hizkuntza inposizioa eta euskaldunon asimilazioa baizik. Baina elebitasun onaren diskurtsoa irentsarazi digute, "hizkuntzak jakitea beti ongi dagoela" sinetsita, ez diezaioGUN inposizioari aurre egin (ahal izan), espainola eta frantsesa "ez direlako kaltegarriak". Eta guk, kolonizatu gaixook, geure egin dugu diskurtso hori, harrigarriki. Hemengo *elebitasuna* ez da ez ona, ez laudagarria, ez defendagarria, ezta aldarrikatzeko modukoa ere.

Izan ere, mendez mende pairatzen dugun espainiar eta frantses okupazioaren sintoma baino ez da, eta tamainako drama batetik ezin baita ondorio onik etorri.

Maila sozialean errazagoa da tranpa hori ikustea, eremu administratiboan-eta hizkuntza arrotz horiek duten nagusitasuna erabatekoa baita. Hor, beraz, errazago antzematen dugu inposizioa, eta benetan dagoena diglosia dela ikustera ere iristen gara. Baina, zer gertatzen da gure elebitasunarekin? Euskaraz egin ahal izatea aldarrikatzen dugu, bai, baina erdaraz ere moldatu ahal izateak -elebidunak garelako, hain zuzen ere- kamuflatu egiten du "inposizioaren" gordinkeria, azalekoagoa bilakatzen duelako egoera, eta beraz, eramangarriagoa.

Lapurdin bizi izan nintzen garaian ohartu nintzen horretaz, gaizki pasatu nuelako hasieran, frantsesez (ongi) oraindik ez nekienean. Banekien neure Herrian nengoela, bertako hizkuntza euskara zela eta ongi hitz egiten nuela lurralde horretako hizkuntza, baina ezin nuen saihezi gaizki sentitzea, errailetan bizi nuelako gutxiagotasuna, ezina, konplexua.

Nik -ikasia, ideologikoki babestua, euskal gatazkaz kontzientea- hori sentitu baldin banuen, zer ez ote zuten gure

aitzineko arbasoek pairatu behar izan. Frantsesa ikasi nahi nuen, baina ez beste hizkuntza bat jakiteagatik, baizik eta beren pareko bilakatzeko ere. Ulertzen, ezta?

Kolonizazio eta *asimilazio* bezalako kontzeptuek azpian duten benetako esanahia ezagutu dut, neure larruan, kontzeptu huts izatetik areago, errealitate gordin, suntsitzaile eta bortitzaren adierazle direla ohartu nintzen. Zergatik ez zitzaidan ordura arte gertatu? Bada, txikitatik naizelako euskara-espainol elebiduna, eta hizkuntza ezagutzeak inposizio sentsazioa lausotu eta arindu egiten duelako, ia modu intelektual gisa besterik ez sentitzera, gorputzari lotutako bizipenik gabe.

Kolonizazioak dena kutsatzen baitu, gure ideologia ere gutxiagotasun konplexuak jota dago, hizkuntza-aniztasunaren alde gaudela esatera ere iritsita, inposizioaren eufemismoa dela "ahaztuta", edo Euskal Herriak pairatzen duen asimilazio nazional eta kulturalaren beste estadio bat ez balitz bezala. Elebitasuna, hemen, gu frantsestea eta espainoltzea beste helbururik ez duen estrategia baten iruzurra da, asimilazioaren ondorio ez ezik, asimilazioaren eragile ere badena. ●



ARKAITZ ZARRAGA
EUSKARA IRAKASLEA

C2ko ikasleei eskerrak

Administrazioko hainbat gai, LGT-BI+ kolektiboko kideen beharri-zanak, segurtasun subjektiboa, klima aldaketa, gentrifikazioa, ikus-entzunezkoak erabiltzeko modu berriak, audientzia-datuak jasotzeko moduak, dislexia, ikuspegi pedagogiko aktibo eta irisgarriak, literatur itzulpengintza, koleopteroen ezaugarriak eta haien garrantzia... UEUko udako ikastaroen egitaraua dirudi, baina aurtengo C2ko ikasleen egitasmoetako batzuk dira.

Esker hitzak baino ez dauzkat ikasleentzat. Horrelako gaiak eta antzekoak dakartzate klasera, eta horiei buruzko hainbat argibide, kontakizun, aholku eta argudio partekatzen dituzte, ahoz zein idatziz. Gogotsu ari dira, eta igarri egiten da.

Esan gabe doa ni ez naizela gai horietan guztietan aditua. Neurri handi batean arlo bakoitzari lotutako testuak eta tresnak eskaini eta zalantzak argitzeko bideak iradokitzen dizkiet. Ezberdina litzateke guztiak tipologia antzekoko ikasleak balira; ni neu ere, gai askori buruzko zertzeladak jaso beharrean, esparru jakin batean espezializatuko nintzateke.

Guztiekin ere lan munduan aritzeko bilatzen dute goi mailako titulua. Batzuk jada euskaraz aritzen dira lanean, eta zenbait zalantza eta segurtasun falta izanik ere, arazorik gabe burutzen dute lana. Besteek erraz irudikatzen dituzte

lanean egin beharko dituzten zereginak, eta horiek euskaraz egingo dituztela aurreikusten dute. Hori dute buruan, tituluaz gain, noski.

Orain arte ez dugu azterketa oso presente izan programazioan, baina jada bi hilabete baino ez zaizkigu geratzen BE-Cerako, eta horretara bideratuko ditugu datozen 7-8 asteak, tartean Aste Santua. Beraz, idazlanak, laburpenek eta bitartekotza ariketak presentzia handia izango dute haien egunerokoan, eta nirean.

Ikasleetako askok gutxieneko maila izango dute azterketa heldzerako. Lau aste barru neuk esango diet nortzuk dauden gaintzeko moduan, eta “pasea” eman azterketa ofiziala egiteko. Horiek guztiak gai dira (edo izango dira lan munduratzeko) euren lana euskaraz burutzeko. Hala ere, jakina, lanean jarraituko dute gaitasuna eskuratzen, beste guztiok bezala.

Baina, estatistiken arabera, %16k baino ez dute egiaztagiria lortuko. Izan ere, gauza bat da maila izatea, eta beste bat azterketaren galbahea pasatzea. Berriro ere, txarto sentituko naiz ikasle horienagatik.

Ikasle horiek lanean euskaraz behar ditugu, eta, batzuetan, titulua lanpostu baterako giltza da, baina beste batzuetan, euskaldun sentitu eta euskaraz lan egin ahal izateko gaintitu beharreko langa. Eta C2koa oso altu dago, altuegi! ●

Espantuka



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Ez dut beti ulertzen nola aritzen ahal diren lur planeta honetako zati okitu, zuri, gizakoi eta kapitalistako aho zabal mediatikoak, beraiena, hots, gurea, *zibilizazioa* dela espantuka. Berriak irakurtzen baldin baditugu, alta, aise ohartuko gara, jendetasuna baino, barbaria dela nagusiago hemen gainti ere. Gainera, ematen du herritar arruntak biolentzia dosia gero eta handiagoak eskatzen dituela, Trump autokrataren ideologia totalitarioaren iturriko eskuinteko ur kutsatua hurrupatu lehiaz dabilenean, adibidez. Inozentea eta naifa naiz, horretan arrazoi duzu, irakurle...

Batzuetan, hargatik, Jacques Derri-
da-ren aspaldiko erran bat dabilkit buruan, zibilizazio “deszibilizatu” honen marmolezko oinarrietan idaztea mereziko lukeena: “Barkamena posible baldin bada, molde berezi batez bederen, barka ezina den horrekin berdin akordatzea komeniko litzateke!”. Nerauk ere, euskaldun gisa, ez dut horretan arras sinesten, baina espantuka nabil barkatzaile handietatik banintz bezala... nire buruari deus barkatzen ez diodan bitartean. Egia da, bakoitzak gure kontradikzioak ditugula eta horiekin bizi behar dugula... ●

Ordezkapen Handia



GORKA MENENDEZ
MILITANTEA, NEKAZARIA
ETA BOTANIKOA

Aurrekoan, ustezko ezkertiar bati entzun nion esaten Euskal Herrian dagoeneko populazioaren %20 atzerritarra zela. Eta horrek euskal nortasuna, hizkuntza eta kultura arriskuan jartzen zituela. Azpimarratzen zuen migrazio masifikatua zela arazoa, masifikazioak zailtzen baitu migranteen “integrazio” egokia gure kultura eta ohituretan. Ordezkapen Handiaren teoriak hitz egin zuen: Europako populazio zuri eta kristaua ordezkatu nahi zuen horrelako plan ezkutua.

Horri buruz hausnartzen, laster ohar-tu nintzen Euskal Herriak dagoeneko “ordezkapen handi” bat bizi izan duela. XX. mendean zehar espainiar jatorrizko milaka etorkinek gure herrietako demografia goitik behera aldatu zuten: hortaz, Euskal Herrian jatorri kanpotarra dugunok %20 baino askoz ere gehiago gara. Horietako asko, ordea, bere garaian langile eta nazio askapenerako borroketara batu ziren eta, gaur egun, beraien seme-alabetako askok, erabat euskaldunduta, buru-belarri dihardugu askapen borrokaren hamaika adierazpenetan. Euskal Herria ez da desagertu, are gehiago, zentzu askotan aberastu eta indartu dela esango nuke.

Periferia kolonialetik datozen askok ekarpen kultural eta politiko ugari dakartzate. Ez ote da askatzaileagoa izango integrazioaren paradigman baino elkar ikastearen paradigman aritzea?

Orduan bezala, egungo olatu migranteak baditu arriskuak, baina horiek ez ditugu migranteengan topatuko. Euskarari dagokionez, esate baterako, arabiar edo senegaldar batentzako berdina da euskara edo gaztelera ikastea. Gehienek, ordea, gaztelera ikasten dute, zergatik? Bada, Espainiako Estatuak gure hizkuntza gutxitua duelako eta ez dagoelako normalizatuta. Ez gaitezen etsaiz nahastu. “Integrazioaz” ere asko hitz egiten da, hainbeste migrante badatoz ezingo ditugula “gure kulturari” integratu. Baina zertara “integratu” behar ditugu? Gurean

nagusituta dagoen kultura indibidualista eta kapitalistara? Lurretik erabat desko-nektatuta dauden bizimodu metropolitartarretara? Ez dezagun ahaztu periferia kolonialetik datozen horietako askok ezagutza eta ekarpen kultural eta politiko ugari dakartzatela. Ez ote da askatzaileagoa izango, hortaz, integrazioaren paradigman baino elkar ikastearen paradigman aritzea?

Azkenik, Ordezkapen Handiaren teoriak islamean jartzen du arreta. Islama, bere horretan, Euskal Herriarentzako mehatxu bat da? Nire ustez, ez. Kultura islamikoa euskalduntasunaren parte osagarria izan daiteke inolako arazorik gabe, kultura kristaua den bezalaxe. Horrek ez du esan nahi islamaren adierazpen batzuk arriskutsuak ez direnik (kristautasunarenak bezalaxe), eta beraz, borrokatu behar ez ditugunik. Hor daukagu salafismoa, bizitzaren adierazpen oro, publiko zein pribatu, islamaren arabera ordenatu nahi duen proposamen politiko atzerakoia. Horrelakoak badira mehatxua Euskal Herri aske batentzat, eta segur aski, etorkizunean borrokatu beharko ditugu, integratista katolikoak borrokatzen ditugun bezalaxe. Baina, beste behin, ez gaitezen etsaiz nahastu. ●

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A

2 FINALERDIA

MARTXOAK 9 IGANDEA ARAMAIO

Saio banatako irabazleen artekoa

ARAMAIOKO HERRI ESKOLAN

12:00ETAN SAIOA

14:00ETAN BAZKARIA

16:30ETAN SAIOA

Bazkaria 23euro eta 12 euro (18 urtetik beherakook)
MARTXOAREN 5 BAINO LEHEN,
www.bertsosarrenek.eus webgunean.

araba elava
URS
Vital
artepan
ARGIA



Menda Bikoitza

Bi astelehenean behin
ARGIA eta audio
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Garbiñe Larrearen podcasta

Sendabelarrei buruzko
bitxikeriak, erabilera
praktikoak eta elkarrizketak

 ARGIA



1936KO GERRAKO HAURRAK

BIDAIA
ITXI GABEA

1936ko Gerran milaka haurrek Euskal Herria utzi behar izan zuten faxisten bonbetatik ihes egiteko. Frantzia, Katalunia, Belgika, Erresuma Batua, Sobietar Batasuna eta Amerikako herrialdeetara joandako horien historia jasotzeko zeregin erraldoiari ekin dio Intxorta 1937 elkarteak. Gipuzkoan 10.500 haur erbesteratu kontatu dituzte, uste zutenaren bikoitza, eta orain, ikerketa Euskal Herri osora zabaltzea erabaki dute: 35.000 izan daitezke. “Traumak zauriak uzten ditu, eta gai honetan ez ziren itxi”, azaldu digute.

 URKO APAOLAZA AVILA

Gerra hasi zenean 6 urte nituen eta gurasoek, segurtasunagatik, Iparraldera bidali ninduten. Oraindik gogoan dut anaiarengandik banatzean sortu zitzaidan angustia eta izua”. Horrela hasten du bere kontakizuna Kontxi Urkijo errenteriarrak, Intxorta 1937 elkarteak jasotako testigantzan. Irunen zeudela, baina, Nazioarteko zubira iritsi baino lehen alarma antiaereoak jo zuen eta soto batean babestu ziren, goiko etxea bonbardatzen zuten bitartean: “Urte askoan amesgaizto batekin bizi izan nintzen: gainera erortzen zitzaizkidan hondakinen eta pareta zatien artean ikusten nuen nire burua”.

Kontxi, sorterritik aldendu zuten haurren artean bat gehiago izan zen, milaka askoren artean beste bat. Baina bere hitzek itsasoko olatu errepikakorren antzera egiten dute eztanda egungo mundu nahasian. 1936ko abuztuaren 30ean arrapaladan Kontxirekin batera Irungo muga gurutzatu zuten zientoka emakume eta haurrek –1.500 izan zirela uste

Kontxi sorterritik aldendu zuten milaka haurren artean bat gehiago izan zen. Baina bere hitzek itsasoko olatu errepikakorren antzera egiten dute eztanda egungo mundu nahasian

da-, ordura arte ikusi gabeko fenomeno estreintatzeko zoritxarra izan zuten: Euskal Herriko haurren erbestealdi masiboarena, Espainiako Estatuko garrantzitsuenetakoa.

Intxorta 1937 elkarteak haur horien historia jasotzen ari da. Testigantzak bildu ditu, artxiboak arakatu, eta Gipuzkoako kasua zehatz-mehatz ikertu du. Emaizta, *Orratz begia. 1936 – Gipuzkoako gerra haurrak* izeneko katalogo-liburua da, Erresuma Batuko Basque Children elkartearekin eta Memory as Transgene-

ration Care (Memoria Belaunaldiarteko Zaintzarako) egitasmoarekin elkarlanean argitaratua, Arrasateko Udalaren zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Hainbat sortzailek ere kolaboratu dute proiektuan, hala nola Ines Osinaga musikariak, Joseba Sarrionandia idazleak eta Judith Martínez artistak. Gainera, material horrekin guztiarekin erakusketa paratu dute Arrasaten eta Zumaian, eta herri gehiagotan antolatzea aurreikusi dute, esaterako Irunen, Gernikako Bakearen Museoa eta Euskal Herria Museoa.

Aurrera begirakoen artean, ordea, badeute erronka handiago bat: “Orain arte egon izan garen gerrako haurrek oso pozik hartu dute eurekin gogoratu eta aitortza egitea. Horregatik erabaki dugu ikerketa Araba, Bizkaia eta Nafarroara zabaltzea”, diote Juan Ramon Garai eta Julia Monge Intxorta 1937 elkarteak ki-deek, astekari honen galderei erantzunez. Sumatzen dute, 1936ko haurren erbeste-ratzea, kuantitatiboki eta kualitatiboki uste zena baino askoz handiagoa eta sakonagoa izan zela Euskal Herri osoan.



"Nebei esan nien: igual ez ditugu berriz
ikusiko... eta negarrez hasi nintzen". *Habana,*
Santurtzi, 1937ko maiatzaren 21a.

GETTY

GERRA TOTALA, DENAK BIKTIMA

Zerk ezberdintzen du 1936ko erbestealdia? Zergatik erabaki zuten milaka haur sorterritik urrun bidaltzea? Europan lehen aldiz, biztanleria osoari eragin zion gerra totala izan zen hura, frontean zeuden soldaduak ez ezik, herritarrak ere eraso zituzten, berdin agureak nola haurrak. Ekialde Hurbiletik gaur egun datozkigun irudiak ikusita, ez zaigu kostako horrek zer eragin izan zuen imajinatzea.

“Irunen jende guztiak egiten du ihes bestaldera, baina ez soilik muga ondoan dutelako, baita ere ikusten dutelako edozein izan zitekeela biktima”, argitu digu Josu Chueca historialariak. Intxorta 1937ko kidea da bera ere, eta gerrako haurrei buruz egiten ari diren ikerketan buru-belarri ibili da hasieratik Garai eta Mongerekin batera, artxiboetan nola sustapen lanetan. Bere esanetan, hegazkinek markatu zuten aurreko gatazkekiko aldea, eta hori lehen momentutik ikusi zen, 1936ko abuztuan Bidasoaldeko borrokaldietan armada frankistak Irun bonbardatu zuenean.

Orduz geroztik hegazkin faxistek etengabe eraso zuten airez atzeguardia. Baina 1937ko martxoan, Emilio Mola jeneral kolpistak “Iparraldeko Kanpaina” hastea agindu zuenean, bonbardaketa indiskriminatu horiek sarraski bihurtuko dira, Durango izango da lehena, 300

“ROJAS! ZERTARAKO JOAN ZINETEN?”

1937an, Hondarribian, Nuestra Señora del Pilar aterpetxea jarri zuen martxan erregimen frankistak, eta 1945. urtera arte egon zen zabalik. Atzerrira ebakuaturiko haurrak sorterrira itzultzen zirenean, normalean toki hura izaten zen haien lehen geldialdia Irundik muga zeharkatzean. Testigantzek zein garaiko dokumentuek adierazten dutenez, milaka haur pasa ziren handik, eta baldintza penagarriak izaten zituzten.

Aterpetxea Falangeko Auxilio Social eta Sección Femeninaren esku zegoen, eta haurrak jazartzeko eta nazional-katolizismoan doktrinatzeko erabiltzen zuten, senitartekoren bat euren kargu egin arte edo beste norabait bidali arte. “Irainak sarri-sarri izaten ziren”, gogoratzen du 14 urterekin handik igaro zen Amelia Fuentesek: “*Rojas!* (Gorri horiek), zertarako joan zineten?”. Besoa goran kantatu behar izaten genuen jan ahal izateko, eta hiruk ohe berean egiten genuen lo, manta bakar batekin, hotzak akabatzen”.

hildakorekin. Horrek azkartu egingo ditu haurrak gerrako testuingurutik ateratzeko ahaleginak.

AGURTZERAKOAN, EZ EGIN ENBARAZU

Haurren ebakuazioak hainbat fase izan zituen. 1936ko udan Irundik Hendaiara igaro zirenek, Gurutze Gorria eta frantziar soldaduak zituzten zain. Miliziano gehienak Kataluniara joan ziren Perpinyà barrera, frontean borrokatzera. Aldiz, haur eta emakume asko Ipar Euskal Herriko hainbat herritan lekutu zituzten, baita urrunago ere, Bordelen eta Anguleman kasu. Gero, Bidasoako muga frankisten esku geratu zenean, herritar gehienek Bizkairantz jo zuten, oinez, gurdian edo ahal zuten moduan: “Oraindik ez dira erbesteratuak, baina jadanik erre-fuxiatuak dira”, diosku Chuecak.

1937ko martxotik aurrera, ordea, milaka haur Euskal Herritik ateratzen hasiko dira, itsasontziz oso ondo antolatua zeuden espedizioetan. Sortu berria zen Eusko Jaurlaritzako bi sail arduratuko dira horretaz: Gizarte Laguntzen saila, Juan Gracia sozialistak zuzendua, eta Kultura saila, Jesús María Leizaola jeltzalearen eskuetan.

Bitxia da, espedizioak ezkutuan egin beharrean modu irekian publizitatu zituzten, zeukaten izaera humanitarioaren



Habana ontzian 4.000 haur baino gehiago pilotzera iritsi ziren bidaia bakoitzean, gerratik ihes egiteko.

80 ARGAZKI IZENA JARTZEKO ZAIN



INTXORTA 1937

Swanseako udalekuetan izandako 80 haurren argazkiak eta izen-zerrenda dute, baina lotu gabe.

Erresuma Batuko Basque Children elkartearekin urte luzez egindako harremanaren ondorioz, Birminghamgo unibertsitateko irakasle eta Memory as Transgenerational Care (Memoria Belaunaldiarteko Zaintzarako) taldeko partaide Monika Jatok, informazio harrigarria helarazi zien Intxorta 1937 elkarteak kideei. Cervantes institutuak Manchesterren antolatutako erakusketa batean ikusgai jarritako dokumentu bat zen: Swansean (Gales) Sketty Parkeko udalekuetan 1937an egondako 80 euskal haurren argazkiak, eta haiekin batera, izen-abizen guztiak dakartzan zerrenda luze bat.

Arazoa zera da, argazkiak eta izenak ez daudela lotuta, ez dagoela nor den nor jakiteko modurik. Orain, irudiak publiko egin eta herritarrei laguntza eskatu diete: “Oraingoz ez dugu lortu inor identifikatzea. Baina ekimen horri esker 20 pertsonaren kontaktuak eskuratu ditugu, gehienak gerrako haurren ondorengoak dira”.

seinale. Prentsan horren berri ematen zen, gurasoek nora joan behar zuten jakiteko; *Euzkadi* egunkarian, adibidez, eba-kuatu behar zituzten zientoka haurtxoren izenak argitaratzen zituzten.

Lehen espedizioa Bermeotik irten zen, 1937ko martxoaren 20an: “Arren, eskatzen diegu haurren amei ez dezatela enbarazurik egin agurtzeko garaian”, ohartarazi zuten agintariek *Euzkadi*-n. Egun bi eta erdiko zeharkaldiaren ostean Frantziako Atlantikoko kostaldean dagoen Oléron uharteko udalekuetara iritsi ziren espedizio hartako 450 haurrak.

Bi edo hiru hilabeterako aisialdiko txango bat bezala planteatu zituzten bidaiak, konbentzitu zezudelako azkenean Errepublika gailendu eta egoera hark ez zuela asko iraungo. Baina gerrak 1939 arte iraun zuen, eta gerraoste luzeak gehiago. Askok ez ziren sekula itzuliko.

THE BASQUE CHILDREN

Haurren ebakuazio masiboaren ikurra *Habana* ontzia izan zen. Maiatzaren 6an abiatu zen estreinakoz Santurtziko portutik Arroxelara, 2.273 haur eta hainbat

Atzerriko gobernu gehienek jarrera lotsagarriaren aurrean, gizarteko talde eta elkartasun sareek hartu zuten haurrak laguntzeko iniziatiba

irakasle eta sanitario barruan zeramatzala. Halako sei bidaia egin zituen hurrengo asteetan, haurrak Frantziara, Erresuma Batura, Belgikara edo Sobietar Batasunera eramateko. Helmugara iristean, haurrak banatu eta beste herrietako udaleku edo aterpeetan birkokatzen zituzten, gero eta gehiago, orduan eta urrunago.

Seguruenik, Southamptonera egindakoa da memoria kolektiboan iltzatuen gelditu den bidaietako bat. Maiatzaren 21ean, *Habana*-k 4.261 haur garraiatu zituen Ingalaterrako hiri hartara, *The Basque Children* deiturikoak. Egun har-

tan, Agustina Linazasoro donostiarra itsasontziko kubiartan zegoen, Marcelo eta Juan Mari nebatxoekin batera. Beste neba batek eta aitak lagundu zieten portura: “Biak hasi ziren negarrez. Eta ni, barkuan, ere bai. Mutikoei hau esan nien, animatu beharrean: ‘Igual ez ditugu berriz ikusiko!’”. Eta negarrez hasi nintzen”, oroitzen du. Kantauri haserre, *Habana* zambiluka, haurrak negarrez Southamptonerako bidean. Eszena traumatiko hori arkatzez eta kolorez marrazturik ikus liteke Begoña Garridok eta Oskar Gorroñok egindako *Erbestearen memoriak*. 37ko euskal haurrak (Autodizioa, 2024) komiki liburuan.

Behin Ingalaterrara iritsita, North Stonehamen denbora gutxian jasotako kanpaleku handi batera eraman zituzten, *scouts*-ak bezala bizitzeko atondua. Sindikatuak, erakunde ezkertiarak eta erlijiosoak, edo besterik gabe, hunkituri herriarrak murgildu ziren zeregin horretan. Erresuma Batuko gobernu kontserbadoreak, aldiz, ez zuen hatz bat bera ere mugitu “Espainiako gerrako” haurrak laguntzeko.

HAUR DESAGERTUARI

Orratz Begia proiektuaren baitan, hainbat tailer antolatu zituzten 2023ko irailean gerrako haurren testigantzak bildu eta partekatze-ko. Horien artean María Luisa Ruiz Aranarena dago, 1936ko Gerran erbesteraturiko haurra. Amarekin eta Adolfo anaia txikiarekin Azkoi-tira itzultzekotan zirela, ama hil zitzairen. Tren geltokian, andre batzuek anai-arrebak banandu eta ez zuen Adolfo sekula gehiago ikusi: “Jun omen ziren, billeteak hartu, ni eskutikan helduta, anaia beste andra horrekin eta bueltan, ez ume, ez andra... Holan desagertu zan umea”.

Joseba Sarrionandiak hitzak eta Ines Osinagak musika jarrita, *Haur desagertuari* kantua osatu dute historia hori oinarri, hemen pasarte bat:

*Aita kartzelan, ama hilerrian,
zuk 2 eta nik 4 urte.
Iheslarien estazioa
izan genuen atarte,
andre dotore batek hartu ta
eraman zintuen arte.*

*Baina non zaude zu?
Nor zaren badakizu?*



María Luisa eta Adolfo Ruiz Arana,
María Arana Retegi amarekin, Blanesen.

1937ko apirilaren 28an *The Times* egunkariak titular haxe jaso zuen: *The tragedy of Guernica*. Eta honela hasten du George Steer korrespontsalak bere kronika famatua: “Gernika, euskaldunen hiririk antzinakoena eta bere kultur ohituren bilgunea, erabat suntsituta geratu zen atzo arratsaldean matxinatuen aire erasoaldi batean”. Britainiarren iritzi publikoan eragin handia izan zuen horrek, eta gobernuak ebakuazioa baimendu behar izan zuen –besteak beste Leath Manning diputatu laboristaren lan setiari esker-. Baina Ingalaterrara egindako lehenengo eta azken bidaia izan zen hura.

HERRITARREN ELKARTASUNA OINARRI

Erresuma Batukoek bezala, beste herrialdeetako agintari gehienek ere begi txarrez ikusten zituzten errefuxiatuak. Frantziako Gobernuak, esaterako, iheslariak jazartzera iritsi zen. Jarrera lotsagarri horren aurrean, gizarteko talde eta elkartasun sareek hartu zuten iniziatiba. “Frantzia osoan, erakunde eta ekimen solidarioen sare zabal batek lagundu zuen”, nabarmendu du Garaik mugimendu horiez galdetzean. Belgikan, berriz, hango alderdi sozialistaren lana eta Elizako kardinalekin EAJk egindako gestioak funtsezko izan ziren haurrak hartzeko.

Baina gobernu guztiak ez ziren berdinak. Mexikokoak eta Sobietar Batasunekoak, adibidez, beso zabalik jaso zituzten euskal haurrak. 1937ko ekainaren 22an Leningradora iritsi ziren haurtxoei txaloka egin zieten ongi etorria, “haurren etxe” ofizialean eman zieten ostatu, eta hezkuntza publiko eleanitza jaso zuten. “Jendeak badaki haurrak Britainia Handira edo Errusiara eraman zituztela –dio Josu Chuecak-. Baina askok ideia orokor bat besterik ez dute, eta ñabardura horiek inportanteak dira”.

ERBESTEAREN GAZI-GOZOAK

Gerra amaitu zenean, aparatu frankistak propagandarako makinaria guztia jarri zuen martxan, ihesean joandako haurrak sorterriratzeko, “bahituta” zeudela esanda. Hasieran, haietako batzuk itzuli ziren soilik, baina Bigarren Mundu Gerra lehertzerakoan beste askok ere erabaki bera hartu zuten, ikusita jadanik ez zeudela toki seguruan. Errusiara joandako haur gehienak, aldiz, han geratu ziren, eta haietako zenbait nazien kontra borrokatzen hil ziren.



INTXORTA 1937



Espedizioetako nortasun zenbakiaren fitxa bat.
SOUTHAMPTON ARTXIBOA

Nolanahi ere, atzerrian zein etxera itzulita, denek bizi izan zuten erbestealdi hura garai mingots baten moduan, Mongek kontatu digunez: “Batzuek guraseen heriotza eta espetxeratzea ezagutu zuten; beste batzuk haur lapurtuak izan ziren; eta berriz ere beste gerra bat bizi izan zutenak ere bazeuden. Erbes-tetik bueltan, aldiz, askok topo egin zuten ezer ez zutela, iseka artean bizitzera kondenatu zituzten, euskara lapurtu eta euren benetako izenak edo ‘gorri-usaina’ zuen oro aldarazi zieten. Lehen ez zen horretaz hitz egiten, baina orain badakigu halako gai batek traumak eta zauriak uzten dituela, eta ez direla itxi, isiltasun handia izan delako eta bakoitzak ahal duena egin duelako”.

“GERRAKO HAURRAK, NOIZKO?”

2021eko irailaren 26an, Arrasaten



INTXORTA 1937

Ezkerrean, Frantziako Óleron irlatik Flandriako (Belgika) Oostduinkerkeren iritsitako haurrak, 1937an. Eskuinean, erakusketa Arrasateko Kulturate aretoan.

1936ko Gerran hildakoei eta desagertuei egindako omenaldi baten ostean, Errusian bizi izandako pertsona bat hurbildu zen Intxorta 1937ko kideengana: “Gerrako haurrak, noizko?”, galdetu zien. Elkartea 1986tik ari da elkarriketak egiten oroimen historikoaren inguruan eta gai hori zeharka beti agertu izan den arren, oraindik ez zuten seriozoki aztertu: “Konturatu ginen arrazoia zeukala”, dio Garaik.

Ikerketa abiatu zuten, lehenik Debaioienan eta gero Gipuzkoan. Eta hasiera batean 5.000 haurren izenak berreskuratzea espero bazuten ere, azkenerako kopuru hori bikoiztu egin dute, 10.500 atera zaizkie, eta oraindik gehiago izango dira seguruenik: “Zumaian erakus-

keta inauguratzen izan ginenean, gizon bat azaldu zitzaigun. Kontatu zigun Sautoñan jaio zela eta gero Frantziara joan zela amarekin; aita ez zuen 12 urte geroago arte ezagutu. Hori ez zegoen gure fitxetan”, azaldu du Chuecak.

Intxorta 1937ko kideen aburuz, beste lurraldeetakoak gehituta, 35.000 inguru izango dira Euskal Herriko gerrako haurren zerrenda osatuko dutenak. Baina horretarako baliabideak beharrezkoak dira, Gipuzkoako Aldundiak emandako laguntza bezalakoak. Lekukotzak biltzea, dokumentuei hautsa kentzea eta artxiboak ikertzea askotan ez baita erraza izaten, are gehiago datuak atzerrian sakabanatuta edo izenak oker idatzita daudenean. Horregatik, inportantea de-

ritze Erresuma Batuko Basque Children eta antzeko elkarteekin, herrietako taldeekin eta norbanako adituekin elkarlanean aritzea.

“Berandu gabilta –aitortu du Garaik–. Franco hil ostean, administrazioak, alderdiek edo unibertsitateek gerra galdu zutenen historia berreskuratu beharko lukete, baina ez zuten egin. Memoria taldeen esku geratu zen esparru hori, ikerketa asko egin ziren, baina gerrako haurren gaia ahaztua izan da orain arte”. Intxorta 1937koek dioten moduan, “memoria zaindu eta partekatzea praktika etiko eta politiko” gisa ulertzen badugu, inoiz ez da beranduegi ordea, ezta joan-etorriko bidaia haren zauriak ixten saiatzeko ere.? ●

**GUK
SINESTEN
DIZUGU**

ERASOEN ARRETARAKO TELEFONOA
638 206 586
OTSAILEKO ETA MARTXOKO
OSTIRALAK ETA LARUNBATAK
18:00-06:00

**24
ORDUZ**

112
Larrialdi zerbitzuak
092
Udalzaingoa

**ASTELEHENETIK
OSTIRALERA**

Kulturarteko Plaza Feminista
943 33 70 17
@HernaniPlazaFem

Hemen ez da
gizabanak ez duela
erabakirik onartzen



Herri Mugimendua saretu eta eraginkortzeko tresnak eskaini nahi ditu BAMEk



Euskal Herriko bi muturretatik datoz Itziar (Bilbo, 1982) eta Ekaitz (Erriberri, 2002), sortzen ari den Burujabetzaren Aldeko Mugimenduaren berri ematera. Euskal Herrian diren burujabetza prozesu ugariak arloz arlo bultzatu eta indartu nahi

ditu BAMEk. Lan horretan hasteko, Herri Mugimenduko kideak eta burujabetza zein herri boterearen aldeko jendea elkartu nahi dute, Tafallan, maiatzaren 24an. Argitu digute ez direla bozeramaileak, sare horretako bi kide baizik.



LANDER ARBELAITZ MITXELENA



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Zer da Burujabetzaren Aldeko Mugimendua?

Ekaitz: Herri Mugimenduari aurkeztu nahi diogun tresna da, eragileak sarezen laguntzeko, arloka burujabetzaren aldeko ekarpena lantzeko, eta denon artean herri boterearen eta burujabetzaren alde lan egiteko.

Itziar: Euskal Herriko Herri Mugimendua askotarikoa da eta, bereizten gaituenari baino, batzen gaituenari heldu nahi izan diogu. Horretarako, bi kontzeptutan jarri nahi dugu indarra: burujabetza eta herri boterea. Ez gatoz inori inolako kapelarik jartzera, baizik eta jadanik naturalki egiten den zerbait eraginkortzera edo sendotzera. Aurrekoan adibidez, Aroztegiako manifestazioan egon ginen. Manifestazioaren ostean, beste mugimendu batzuetan dabiltzan kideekin topo egin nuen, eta elkarriketa

asko horrelakoak izan ziren: “Ah! Pasatu behar diguzu ez dakit zeinen telefonoa” edo “eta hau nola egin zenuten?”. Betidanik halako momentuak aprobetxatu izan ditugu elkarren berri izan, kontutxoak lotu edota laguntza eskatzeko, eta BAMEkin, berez naturala den sare horri tresnak eskaintzen saiatuko gara.

Noiz egingo duzue publiko?

Ekaitz: Tafallan maiatzaren 24an egingo ditugun topaketak izango dira gure lehen mugarría, jendea hurbiltzeko eta ezagutzeko nora goazen. Ekitaldi jendetsua izatea espero dugu.

Itziar: Hemendik eta maiatzera bitartean ekimentxoak egingo ditugu deialdia indartzeko eta proiektua ezagutarazteko, baina batez ere indarrak jarriko ditugu Tafallan Burujabetza eta Herri Boterearen aldeko topaketak prestatzen.

Hala ere, ez dugu mugimendua zer den azalduko argazki edo prentsaurreko jendetsu baten bidez, uste dugulako egiten dugunak errazago azalduko duela zer den BAM; izan ere, topaketak ikuspegi pedagogiko batetik antolatu nahi ditugu. Konfluentziak eta konplizitateak era natural batean lantzeko eguna izango da eta hortik aurrera zer egin dezakegun pentsatzeko.

Bi urtez baino gehiagoz herri mugimenduetako hainbat kideekin eztabaida prozesu bat egin duzue Euskal Herri osoan...

Itziar: Duela bi urte inguru, hainbat herrialdetako jendea, hainbat eragiletan ibiltzen garelako elkar ezagutzen dugunok, antzeko kezkekin genbiltzala ohartu ginen: nola erraztu mugimenduen arteko harremantzea? Zer behar

du Euskal Herriko Herri Mugimenduak? Bada, bi urtez, horri buruz hausnartzen aritu gara, hamaika arlotako pertsonekin batuz, talde txikietan, batzar zabalagoetan, buruz burukoetan... garagardo eta kafe asko hartu dugu tarte honetan! Mugimendua sortu ala ez ere eztabaidatu genuen, akaso ez baitzen beharrezkoa, *txiringo* asko baitago gure herrian! (barreak). Azkenean, jaso genituen ekarpen eta iritzi ugariak erakutsi ziguten baietz, berez baden sarean indartzeko beharra eta gogoia dagoela, Euskal Herria behetik gora eraikitzen jarraitzeko. Askok errepikatu da ere Herri Botereaz baliatzeko beharra, bai eragileek beren kabuz, baita elkarrekin eragina indartzuz. Herri Mugimenduari nola lagundu aztertzen jarri dugu, beraz, gure esfortzua.

Gainera, prozesuan atera da mahai gai-

Dagoeneko abian dauden alternatibak zabaltzeko kanpainak egitea proposatzen dugu



nean jarri nahi ditugula lanerako ditugun tresna ugariak, baita desobedientziaren esparrukoak ere. Guztiok batzen garenean indar handia daukagu, ikusi berri da Aroztegiko manifestazioan, edo lurraren defentsan eta etxebizitzaren gaiarekin azken aldian egindakoetan. Horrekin lotuta, etxebizitzaren gaiarekin jadanik saretu egin dira Euskal Herri mailako eragileak, eta nahi genuke gainontzeko

arlotan ere hori ahalbidetzea. Dagoena indartzen lagundu eta halakorik eginda ez dagoen esparruetan lan egin.

Ekaitz: Etxebizitza, komunikazioa, elikadura, energia... burujabe izateko tresnak baditugu eta horien artean harremanak sendotu behar ditugu. Hizketan aritu ginen gaur egun polarizatuta dagoela Herri Mugimendua kaleetan, bai behintzat gazteriari dagokionez, eta guk eskaini nahi genuke elkar topatzeko espazio atsegin bat. Horrez gain, gauzak egiteko modu berriak probatzeko gogoia ere aipatu da.

Energia, elikadura, finantzak, etxebizitza, telekomunikazioa... landu nahi dituzue. Nola?

Itziar: Ezin diegunez arlo guztiei aldi berean erantzun, pentsatu dugu epe baterako arlo bat aukeratzea eta horrekin



kanpainak eta ekimenak eginez hasia. Euskal Herrian, Herri Mugimenduan ari diren eragile guztiei egiten diegu dei, arlo guzti-guztietakoak. Gure asmoa da arlo bakoitzeko eragileak biltzea eta beraiek adieraztea zeintzuk diren euren beharrak, zer eskaini diezaiotkegun elkarri, zein den burujabetzan aurrera egiteko bidea... Zer egin genezakeen elkarrekin. Beraz, adibidez, energiaren eremuari buruzko lanketa nolakoa izango den sare horretan batzen direnek erabakiko dute. Horrez gain, argi dugu eraikitzeaz gain, deseraiki ere egin beharko dugula. Dese-raikitze, adibideari jarraiki, ekimenak eta kanpainak egin ditzakegu arrotzak zaizkigun energia konpainien aurka.

Ekaitz: Eraikitze, berriz, dagoeneko abian dauden alternatibak zabaltzeko kanpainak egitea proposatzen dugu, sektoreka eragile eta kooperatiba ugari dagoeneko ari direlako lanean. Oraindik esparruz esparruko burujabetzaren aldeko alternatibak ezagutzen ez dituztenei esan nahi genieke: “Zuk darabilzun zerbitzu ala enpresa honek, edo erosten duzun produktu horrek, kalte hau eragiten dio gure herriari, munduko herriei, jendar-teari edota Ama Lurrari; aldiz, alternatiba mordera daukazu, herritik jaiotakoak eta herriarentzat direnak, hau eta hau adibidez”.

Itziar: Ezagutzera eman nahi genituzke proiektu horiek, jendea animatu horietan izen ematera edo parte hartzera. Nik bizitako zerbait kontatuko dut: Izarkomekin daukat mugikorra eta konturatzen naiz oraindik inguruko jende askok ez duela ezagutzen. “Zer da hori? Nola egin duzu?”, galdetzen dit askok, eta beraz, horien zabalkundeari eutsi nahi diogu.



Baina ez gara soilik ari kooperatibei buruz! Maila guztietako eragileak saretu eta indartzeaz ari gara.

Jendeak zer egin behar du mugimenduan parte hartzeko?

Itziar: Topaketen eskema bat zabalduko dugu sareetan eta bertan egongo da izena emateko aukera, *harreman agenda osatu* dioen lekuan. Bestalde, Topaketen egunean proposatuko dugun egitarau oparoan besterik gabe parte hartzeko aukera egongo da, noski! Horrez gain, Herri Mugimenduen mapeo bat ere egiten ari gara, hori ere proiektu honen helburuetako bat baita, jakiteko zonaldeka zer aukera dagoen, nola gauden, zer dugun

faltan...

Ekaitz: Arlo bakoitzean zer kolektibo eta kooperatiba dagoen, adibidez.

Euskal Herriko herri mugimenduen mapeoa egitea lan handia da...

Itziar: Bai, badakigu. Zonaldeka joango gara mapeoa egiten, txikitik handira elikatzen. Dakigun arren, lagun batek dioen moduan, mapeoa amaitu orduko berriro hasi behar dela, etengabe eraldatzen baita Euskal Herriko Herri Mugimendua, zorionez! Gaur egun eskura dauden teknologiek lan hori egiteko erraztasunak ematen dituzte. Helburua ez da herrialdeka taldeak sortzea, gero nazio mailako koordinazioa eta abar egitea, inondik inora ere ez, baizik eta zonaldeka eta harreman naturalen bitartez elikatu nahi den mugimendu bat sortzea.

Burujabetzaren aldeko topaketak Tafallan, zein da asmoa?

Itziar: Egun osoko egitaraua izango da. Batez ere eguneko eskaintzan jarri nahi izan dugu indarra eta ez horrenbeste gaueko parrandan –agian hurrengo urtean, denon artean erabakiz gero, egingo dugu zerbait luzeagoa, kar kar-. Helburua da ilusio giroan, jaia eta borroka uztartuz, arloz arloko eragileen topaketak egitea. Horrez gain, egun horretarako eskaintza oparoa ere prestatzen ari gara: kirol ekimen herrikoiak, umeentzako eskaintza hezitzailea, sortzaile, laborari eta ekoizleen azoka, ikuskizunak, desobedientzia tailerrak eta hitzaldiak, konspirazio-baz-



kari berezia... Azken hau konspirazio gu-
nea izatea nahi dugu eta, arratsaldean,
eguna ospatzeko kontzertuak.

Ekaitz: Hala ere, arloz arloko bilera ho-
riei eman nahi diegu batez ere garrantzia.
Lehen aipatu ditugun arlo horietako ba-
koitza elkartzean, hainbat galdera propo-
samen izango dituzte eztabaidagai: Nola
gaude gure eragilean? Zer behar dugu
hobeto egoteko? Zer eman diezaiokegu
elkarri gure arloko eragileok? Elkartuz
gero, zer eskaini diezaiokegu askapen
prozesuei? Eragile horietako batzuk
gaurdanik lantzen ari dira zer antolatu
nahi izango duten, hitzaldiak eta abar.

Eta topaketak eta gero, zer?

Itziar: Oraingoz kontaktatu ditugun era-
gile guztiek era positiboan erantzun dute
eta parte hartzeko prestutasuna adierazi
digute, izan kooperatibak edo herrietako
mugimendu txikiak... ilusio polita zabal-
tzen ari dela ematen du! Berez, topaketa
horietan elkarren arteko bide-orri bat
osatzea litzateke helburu gorena. Egun
horretan, Euskal Herriko prozesu aska-
tzaileak elikatu eta saretzen jarraitzeko
zer behar dugun identifikatu nahi dugu,
esaterako, komunikazioari begirakoak.
Webgune edo atari digital dinamiko bat



Tafallan helburua izango da ilusio giroan, jaia eta borroka uztartuz, arloz arloko eragileen topaketak egitea



sortzea aurreikusten dugu jendeak bere
euskarriak edota deialdiak igo eta gai-

nontzekoon eskura jartzeko. Zer behar
du herri mugimenduak? Zer behar dugu?
eta zer eman dezakegu? galderei eran-
tzun behar diegu. Herri mugimenduok
era askotako beharrak izaten ditugu: adi-
bidez, ez dakit zein herritan postutxoak
behar badituzte eta norbaitek eskura ba-
ditu uzteko moduan, edo emakumezkoen
taldeen kontaktuak behar baditu norbai-
tek kontzertuak lotzeko... bi adibide bes-
terik ez dira. Guk Euskal Herriaren buru-
jabetzari zer ekarpen egin diezaiokegun
ere pentsatu nahi dugu. ●

Martxokoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

BANAKETA HURBILAGOA MANTENTZEKO BORROKA

Gasteizko Eraman kooperatibak banaketa “era jasangarri eta etikoan” eginez bertako komertzioa bultzatzeko helburua du bere sorreratik, Arabako hiriburuan eta hango bizilagunengan pentsatuta. Hainbat ekimenetan parte hartzen du, horien artean ikasturte honetan egiten ari den Bizieskola, umeak bizikletaz trebatzeko. ARGIAk Eramaneko kide diren Paul Iano eta Peter Plarekin hitz egin du.

 JULEN UGARTEMENDIA  JAIME PINTADO

Banaketa egiteko multinazional askok erabiltzen dituzten moduetatik haratago, tokiko jendearen pentsatu eta beste bide bat hartzen dutenek beren lekua izaten jarraitzen dute. Horren adibide da zama-bizikleten bitartez garraio-zerbitzu integralak egiten dituen Gasteizko Eraman kooperatiba, “era jasangarri eta etikoan” bertako komertzioa bultzatzea eta banaketa profesionalizatzea helburu duena. Eramanek 2020. urtean sortu zenetik erabakiak era kooperatibistan eta “kolektibo gisa” hartzen ditu, sektoreko enpresa handietatik bereizita.

Banaketa bizikletan egitea gustatzen zaiela azaldu du ARGIAko kolaboratzaile eta Eraman kooperatibako sortzaileetakoa den Paul Iano: “Bizi nahi dugun moduan lan egiten ari gara, eta gure balioak horiek direnez, lan hori egiten saiatuko gara bizi garen mundu kapitalistaren barruan”. Iano AEBetan jaioa da eta nerabezaroan Seattle-n bizi zenean

Microsoft eta Amazon bezalako enpresen “eztanda” bizi izan zuen, eta Glovo banaketa-enpresa ezagutu zuenean, bertan nola lan egiten zen lehen eskutik ezagutu zuen. Enpresan “infiltratu” eta erreportaje sakon batean kontatu zituen haien jukutriak ARGIA. “Eramanek gutxieneko soldata baino dezente gehiago ordaintzen du, eta sektorean inork erabiltzen ez duen lan-hitzarmena du”, adierazi du Iano. Kooperatibak besteak beste tokiko saltokietako produktuak, prentsa –horien artean, ARGIAren aste-karia– edo paketeak banatzen ditu, baina Eramanek egiten duen lana banaketa egiteaz haratago doa.

BIZIKLETAREN KULTURA ETORKIZUNEKO BELAUNALDIETARA HURBILDU

Gasteizko jendearekin lotutako ekimenetan interesa agertzen du Eramanek. Parte hartzen ari den azken ekimenetako bat da Bizieskola, Gasteizko Udala-



rekin elkarlanean. Ianoren arabera ekimenaren helburua da “umeak bizikletaz seguru senti daitezen eta hirian modu independentean ibil daitezen sustatzea”, bizikletan eroso sentitzea eta ondo pasatzea. Aurtengo ikasturtean hasi da Eraman umei eskolak ematen astero Gasteizko bi ikastetxetan –astelehenetik ostegunera–, eta kooperatibako kideek astero 40-60 umeri ematen dizkiete eskolak.

Bizikletaren kultura sustatu nahi du kooperatibak, kirola egiteko eta lanerako tresna izatetik haratago, eta Ianoren arabera Gasteizen bizikletaz ibiltzeko azpiegitura dagoenez eta gero eta hobeaz denez, etorkizuneko belaunaldiak hirian eroso ibil daitezen trebatzea interes-



garria iruditu zaie. Ianok nabarmendu du ahalik eta ume gehienengana iritsi nahi dutela. Eramaneko kide Peter Plak azpimarratu du ekimena inklusiboa dela eta bertan ezgaitasun fisikoak dituzten umeek ere parte hartzen dutela. Kontatu dute klaseak ematen zizkioten ume batek, beti patinetean ibiltzen zena eta hanketan ezgaitasuna duena, ikaskide guztiak bizikletan ikusi zituenean egun batetik bestera bere kabuz ikasi zuela bizikletan ibiltzen. “Ume horrek bizikletan ibiltzen ikastea baino, inspirazio eta motibazio apur bat behar zuen”, adierazi du Ianok. Bizieskola ekimena kooperatibaren balioekin bat datorrenez, Eramanek ekimenean era kooperatibista batean parte hartzea erabaki du.

BERTAKOA SUSTATZEKO, BERTAKO EKIMENETAN PARTE HARTU

Eramanek bere webgunean nabarmentzen du Gasteizko hiria eta bizilagunak oinarri dituela, eta azken urteetan Bizieskolaz gain hirian izan diren beste zenbait ekimenetan hartu du parte. Kooperatibak banaketak egiteko duen printzipioetako bat emisio murrizketa da, eta “kutsadura sailhesten duen banaketa jasangarria” egiten du. Gasteizko Udala eta beste zenbait entitaterekin batera Crops4Life proiektuan parte hartzen du, eta horren helburua “Gasteizko nekazaritza elikagaien sistemaren ingurumen-aztarna murriztea” eta “elikagai freskoen tokiko ekoizpena handitzea” da, Gasteizko Ingurugiro Galetarako

Ikastegiaren (IGI) arabera. Ianok adierazi du proiektua interesgarria iruditzen zaiela, produktu ekologikoen salmenta handitzeko lan egiten ari dena, eta azpimarratu du ez dutela nahi proiektu hori “pertsona baten edo akziodun batzuen” esku egotea. Crops4Life proiektuaren barruan Aleko nekazaritzako test gunea dago, “Gasteiz inguruan nekazaritza-proiektua probatu nahi duten pertsonen zuzendutako programa berritzailea”, Gasteizko Udalaren arabera. Aleko martxan jartzearekin batera, zuzeneko salmentarako plataforma bat ere abian jarri dute. Egun proiektua bazkideen esku-horien artean, IGI- dagoela adierazi du Ianok, baina une batean ekoizleak berak izango direla Alekoren jabeak.

Eramanek euskararekiko konpromisoa ere erakutsi du, besteak beste Gasteizko IKA euskaltegiarekin egiten ari den lankidetzaren bitartez. Eramanek eta IKAk tokian tokikoaren aldeko apustua egiten dutela dio kooperatibak, eta Eramanek zerbitzu logistikoak eskaini eta IKA euskaltegiaren irudia bizikletan iragartzen duen bitartean, euskaltegiko kideek Eramaneko kideei euskara eskolak ematen dizkiete. Eramanek munduko bederatzi estatutako langileak ditu, eta euskara sustatzen saiatzen da kooperatiba barruan eta hortik kanpo. Ianok 2021ean ARGIArekin izandako elkarrizketa batean adierazi zuen Gasteizera iritsi zenean auzoan ez zutela “eguneroko lan moduan hartzen” kanpotik etorritakoei “bidea erraztea euskara ikasteko”, eta nabarmendu du Euskal Herriko “klase ertainaren parte” izateko “beharrezkoa” dela euskara ikastea. Ianok dio langileak euskara ikasten ari diren orduak lan ordu gisa ordaintzen dituela Eramanek.

Kooperatiba Gasteizetik eta Euskal Herritik kanpo ezagutzera ere eman dute, besteak beste pasa den urtean Gasteizen Eramanek gidatuta egin zen Bizikleta bidezko Mezularien Txapelketa Iberikoaren bitartez. Ia 70 pertsona inskribatu ziren ekitaldian, bertan jarduerak, lasterketak eta eztabaidak egin zituzten, eta hainbat kooperatibak –esaterako Iruñeko ZikloP, Bartzelonako La Sàrria eta L’Henbici, Madrilgo Cleta edo Zaragozako Rayo– elkar ezagutzeko aukera izan zuten, Ciclosfera aldizkariak informatu zuenez. “Eragina izan zuen, eta bertan hasi ziren elkarrizketa askok kooperatiben arteko benetako proiektu bilakatu dira, ez bakarrik Gasteizen, beste toki batzuetan ere bai”, adierazi du Ianok.



“ ”

Banaketa askatasun handia ematen duen sektorea da, interesa eta energia dituen jendea erakartzen du

Paul Iano

EGUNERA ARTE LORTUTAKOA EGONKORTZEKO HELBURUA

Eraman kooperatibak COVID-19aren pandemiaren hasieran sortu zenetik haztea eta martxan jarraitzea lortu du. Ianok aipatu duenez, 2020. urtean ho-

rrelako proiektuen “eztanda” izan zen, eta nabarmendu du adibidez Frantziako Estatuan hilero ziklologistika enpresa bat ixten dela. Gaur egun hutsetik kooperatiba berriak sortzea “oso zaila” dela adierazi du Ianok, eta “askoz sinpleagoa eta eraginkorragoa” dela lehendik dauden kooperatibekin elkarlanean aritzea. Espainiako Estatuan Kataluniako, Madrilgo edo Zaragozako kooperatibekin elkarlanean ari direla aipatu du, eta orain kooperatiba horiekin dagoen sarea egonkortzea dela helburua.

Gasteizko kooperatiba hiru bazkidek sortu zuten eta gaur egun 30 langile inguru dira. Hasieran ez zuten banaketarako “sistematik” eta gaur egun sailak, kontrolak eta plataforma logistikoa dituztela, eta CoopCycle izeneko bizikletazko mezularien kooperatiben federazioaren bitartez app propioa du Eramanek. Eraman kooperatibako kideek adierazi dute proiektuak epe luzean iraun dezan beste gauza batzuk ere bilatu behar dituztela, hala nola jarduera berriak edo diru-laguntzak. Ianok aipatu du banaketa gehienbat aste bukatetara egiten den lana izanda zailtasuna dela langileek egonkortasun ekonomikoa eta lan-egonkortasuna izatea, eta aste barruan jendeak lan egitea ahalbidetzen duen zerbait bilatzeko beharra aipatu du. Epe luzerako proiektua mantentzeko Bizieskolaren antzeko ekimenetan parte hartzearen garrantzia azpimarratu du. Ianok nabarmendu du banaketa “askatasun” handia ematen duen sektorea dela “interesa eta energia” dituen jendea erakartzen duela. Eraman kooperatibak uste du zama bizikletekin eta kemen apur batekin “den-dena” posible dela. ●

ESTREINALDIA



ATERPEA

Diskurtso faxisten dikan dauden herritarren aterpe

hamaika

**Martxoaren 12an hasita
asteazkeneero 21:30ean
Hamaika Telebistan**





Kamiseta **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Historia dosi bat goizeko kafearekin

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Artikulu hau idazten hasi orduko burura datorkit honi lotuta egin genezakeen beste bat: bildu beharko genituzke ARGIA lagunen “erri-toak”, bakoitzak nola eta zein momentutan kentzen dion ARGIAren egutegiari orria eta noiz irakurtzen duen eguneko efemeridea. Sukaldeak izango dira espazio-protagonista, pentsatzen dut. Inork izango al du komunean egutegia? Tira, hori hurrengo baterako. Gaur aurkeztu nahi dizuedana beste bat da, Xabi Burgaña, egutegiko efemeride hauen egilea.

Urte osoko lana izaten da historia-ko gertaera hauen bilketa-lana. Edo urte osoan zehar egoten dira batzuk “egutegiaren txipa” jarrita. “Irakurtzen ditugun liburuetan, ikusten ditugun filmetan datarik edo gertakari esanguratsurik topatzen badugu gure datu basean sartzen dugu”,

azaldu digu Burgaña. Lander Arbelaiz ARGIAko kidea eta biak ibiltzen dira buru-belarri honetan eta koordinazio lan horren emaitza dira eguneroko historia pilula txikiak. Urtetan osatzen doazen datu base horretatik, egun bakoitzeko gertakarien lehen aukeraketa Arbelaizek egiten du eta hain justu urte garai honetan bidaltzen dio Burgañari 365 efemerideen zerrenda (2026koa martxan izango da berandu baino lehen). “Efemeride eta datuetan murgilduta gabiltzanean, barrutik aritzen gara lanean eta emaitzan eragina izaten du, horregatik egiten du lehen aukeraketa Arbelaizek, kanpoko begirada batekin gaien oreka hobeto topatzen baita”, azaldu digu Xabi Burgaña.

Orain hasiko da Burgañaren lan potoena. Aukeraketa jasota, efemeride bakoitzaren inguruko informazioa bildu


eta zailagoa dena, lau esalditan laburtu. “Ez naiz historialaria, baina zalea bai eta ezagutzen ez nituen gertakari askoren berri izateko balio dit honek”, esan digu eta jarraitu: “asko gozatzen dut lan honetan eta behin baino gehiagotan pasa zait gertakari baten bueltakoak irakurtzen hasi eta ezin gelditu; asko ikasten da”.

2020ko *takoa* izan zen Burgañaren lehena eta ordutik hona asko sistematizatu du lana. “Hasieran iturri guztiak bilatu beharra izan nuen eta orain, sarri, gertakari baten inguruko informazioa bilatzeko etxean ditudan liburuetan badakit justu nora jo”, dio. Euskal gatazka-aren gaitan Emilio Lopez Adan *Beltza-aren Borroka armatua Euskadin* eta XX. mendeaz *Por el bien del imperio* eta *El siglo de la revolución* Josep Fontanarenak ditu iturri. ●

Xabi Burgaña 2020ko egutegian hasi zen atzealdeko artikulutxoak idazten eta ordutik aurrerako denetan hartu du parte.



Trumpek miresten badu...



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

AEB, 1900eko azaroaren 6a. William McKinley (1843-1901) bigarren ezkerreko zuten AEBetako presidentea. Berriki, Donald Trump ere bigarren ezkerreko zuten AEBetako presidentea. McKinleyrekiko miresmen garbia agertu du.

Horregatik, AEBetako mendirik altuenari ofizialki berriro presidentea ohiaren izena jartzea erabaki du Trumpek. Obama administrazioak 2015ean ofizialdu zuen Alaskako gailurraren izena: Denali esaten zioten aspaldi bertakoek. Baina orain berriro McKinley Mendia du izena. Mexikoko Golkoari ere izena aldatuta, toponimia horrela aldatzeak eragiten dituen arazo praktikoa eta etikoei muzin egin die.

Baina McKinley beste modu batzuetara ere omendu nahi du Trumpek: haren urratsei jarraituta. McKinleyri "protektionismoaren Napoleon" esaten omen zioten inportazioei muga-zerka zorrotzak jartzea bultzatu zuelako, eta horrek oparotasuna ekarri zion herrialdeari, Trumpen ustez. Baina Trumpek esaten ez duena da neurri horiek ez zirela denek gustuko izan, eta nekazariak gogor kritikatu zituzten bere garaian enpresa handien mesedetan eta euren kaltetan jokatu izana. Gainera, McKinleyk nagusiki Ohioko kongresista zela bultzatu zituen neurri horiek; presidentetzan jarrera aldatu zuen, "merkataritza gatazkak ez dira errentagarriak" esan eta negoziazioaren bidea hobetsi zuen.



William McKinley, AEBetako 25. presidentea.

McKinleyren espantsionismoa ere goiraipatzen du Trumpek. Bere agintaldian Hawaii anexionatu zuen lehenak -uharteak "amerikartu" eta itsas basea bertan jartzeko asmoz-, eta bigarrenak Groenlandia erosi nahi du. Panamako kanala berriro AEBena izateko nahia agertu du Trumpek, eta McKinleyk, Espainiaren aurkako gerra medio, Filipinak, Puerto Rico eta Guam irla lortu zituen. Baina McKinley, printzipioz, Espainiaren aurkako gerra saihesten saiatu zen; William Hearst prentsa magnateak eta beste batzuek hauspotu zuten iritzi publikoa

gerraren alde. Eta garaipena lortuta, Filipinak anexionatzeko erabakia hartzeko modu bitxia izan zuen: gau batez Jainkoak berak aholkatu omen zion. Jainkoaren aholkuaren eraginez, Filipinen aurkako gerrak hiru urte iraun zuen eta 200.000-250.000 filipinarren heriotza eragin zuen.

Bigarren ezkerreko zuten Leon Czolgosz anarkistak. Ez dakigu horretan ere Trumpek McKinleyren bide berdina hartu nahi ote duen. ●



EGIPTOKO ANTZINAROKO MINISTEROIA

Tutankamon eta gero, Tutmosis II.a

Luxorren, Erregeen Haranetik gertu, hilobi garrantzitsu baten sarrera eta pasabide nagusia aurkitu zituzten 2022an. Orain, alabastrozko objektu batean Tutmosis II.aren kartutxoa topatu dute (irudian). Horrek esan nahi du hilobi hori XVIII. dinastiako faraoiarena dela. Oraindik ere, Egipton antzinaroko hilobiak aurkitzen dituzte arkeologoek etengabe,

baina faraoien hilobi ukitugabeak aurkitzea oso zaila da. Jakina, faraoienak ziren aberastasun gehien gordetzen zituzten hilobiak eta, horregatik, gehienak aspaldi harpilatu zituzten. Ukitu gabe aurkitutako azken hilobia Tutankamonena izan zen (1922) eta horregatik azken mendeko aurkikuntza garrantzitsuenetakoa dela diote titularrek. ●

TXIKORI-BELARRA UDABERRIAN



GARBIÑE LARREA

Udaberri aurreratua ate joka da-bilkigu batean eta bestean, tximeletak eta loreak indarrean dabilta. Ez dakit onerako edo txarrerako, gure etxean otsailean tximeleta artaldean ikustea baino otsoa ikustea hobea zela esaten baitzen.

Lore horiak ikusten ditut bizi eta eder edozein bazterretan: San Jose loreak (*Primula vulgaris*), lilipa arruntak (*Narcissus pseudonarcissus*), bitxilo-reak (*Bellis perennis*) eta txikori-belarrak (*Taraxacum officinale*), batez ere. Azken horrekin hasi nuen artikulugintzako bide hau duela bi urte eta berriz ere leku egingo diot, gutxi izango direlako sendabelar emankorrakoak.

Orduan udaberriko hiru hilabetee-tan bederatziurrenak egitea gomen-datu nuen, hosto lehortuekin infusioa prestatu eta goizero baraurik bederatzi egunean jarraian hartzea. Gordinik ja-tea ere ideia ona da baina tamainan, egunean norberaren eskuaren tamai-nako pare bat hosto edo hiru. Entsalada osoa txikori-belar hostoz prestatzea ez dut gomendatzen, behazun hiperreakzioa izan eta ospitalean bukatu duenik ezagutzen baitugu. Ona tamai-nak ere egiten duela, alegia.

Digestio aparatua zaintzeko onene-takoa da; gibela, behazuna, barea, pan-krea, giltzurrunak garbitu eta zaintzeaz gain linfa egoki drainatzen duelako.

Azaleko orbanak eta iluntasunak gar-bitzeko ere balio du, barrua zein kan-poa sendatzen duen seinale. Onurak zerrendatzen hasiera ez noa, esajera-tua naizela esango baitidazue, baina probatu duenak badaki ondo.

Organo multzo hori tratatzeko epe luzeko tratamendua egin behar da, hau da, udaberri osokoa. Hala ere, norbe-raren urdailak eta kemenak esango du posible ote den, askotan ondoeza eragi-ten duelako eta ahulezia ere nabaritzen delako. Halakorik ikusten bada, bertan behera utzi eta hosto lehorren infusioa hartuz bederatziurrena egin.

Sustraiekin egiten da epe luzeko tra-tamendu hau. Lodiak izan ohi dira, azal iluna eta mami zuria dutenak. Lurra heze eta harro badago samurrago ate-rako ditugu, kontuan izan. Eskuila eta urez garbitu ondoren, txanpon txikien neurriko xaflak egitea gomendatzen dut. Labean xigortu ditzakegu (180°C-tan) baina niri bere kabuz lehortzen utzi eta gero zartaginean gorritzea gus-tatzen zait. Behin xigortuta ehotu edo txikitu egin behar dira, kafea ehotzeko gailuarekin. Ehotu ondoren bigarren aldiz xigortzen dira eta bertan utzi era-bat hoztu arte, ondoren ontzi hermeti-koan jaso.

Kafearen kolorea eta antzeko zapo-rea izango dituen edari beltza lortuko dugu kafetera italiarrean eginda. Kafea

edaten duenak erdia kafea eta erdia sustrai xigortua ipin ditzake eta pix-kanaka txikori-belar kopurua gehitzen joan. Aurrenekotik bera hutsik erabil liteke baina erne gorputzak ematen di-tuen seinaleei. Esnea lagungarri erabil daiteke baina gozagarririk ez (ez ezti eta ezta esteviarik ere).

Haurdunaldian eta edoskitzaroan ez hartu. Digestio aparatuko gaitzak dau-denean baliteke onik ez egitea; gastri-tisa, behazunean harriak (edo falta) eta koloneko narritadurarekin erne. Ane-mia badago ahulezia sentsazioa areago-tuko du, burdina nahikoa eduki arte ez da gomendatzen garbiketarik egiterik. Botika diuretikoak eta hipertentsioa-rentzat hartzen direnean medikuari galdetu alde z aurretik. ●

A ZE FAUNA!

ENGAINUAREN EREDU



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Lehatila honetan behin baino gehiagotan azaldu ditugu Ama Naturaren engainuak bere izakiak babestearren. Batzuetan, erle edo liztor itxura zuten euliak ekarri ditugu, beste batzuetan inongo arriskurik ez duten arrisku-kolorazioko intsektuak ere bai (kolorazio aposematikoa deiturikoa), baina gaurkoan haratago joan zaigu denon ama hori eta euli txiki bati intsektu beldurgarri baten ikurra oparitu dio. Izan ere, txanpon baten neurria duen eulitxo honen arrei eskorpioiaren eztena kokatu die abdomenaren bukaeran, intsektu gizagaixoa araknido beldurgarri hori bilakatuaz. Baina lasai izan, oparia beste babes estrategia bat

besterik ez da-eta. Hori bai, oso ondo datorkiona emeari heltzeko estalketa burutzeko garaian.

Intsektu txiki hau maiatza eta iraila bitartean aurkitu dezakegu, egun eguzkitsuetan beroari ihes eginez leku itzaltsuetan, sarritan asunen artean. Euli deitzen badiogu ere (euliak Diptera Ordenakoak dira), ez da oso trebea hegan, baina bai alde egiten, hosto batetik bestera korrika azkar pasatzen da, hostoen artean bizkor-bizkor ezkutatuta. Bere itxura oso berezia da, burutik hasita, tronpa deigarria baitu aurpegian. Apen-dize ikusgarri hori oso egokia da bere janari diren elikagaiak zurrupatzeko – animalien hondakinak, besteak beste–.



ESKORPIOI EULIA

Panorpa communis

TALDEA: Ornogabea / Mecoptera
Ordena, Panorpidae familia.

NEURRIA: 20-30 mm.

NON BIZI DA? Lorategi eta belardi itzaltsu eta hezeetan. Osinetan sarritan.

ZER JATEN DU? Hondakinak, materia organikoa, nektarra, landare-zomorroak...

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

Esan bezala, arrek dute eskorpioi eztenaren itxurako apendizea, baina emeek ez dute halakorik, horien abdomenaren bukaera zorrotza baita.

Txikia bai, baina txikia bezain trebea ere bai! Gure protagonista oso abila baita armiarma-sareetatik harrapakinak lapurtzen (kleptoparasitismo izeneko portaera jarraituta). Horretarako, jakina, bizkorra izan beharra dago, benetako araknidoak ez harrapatu ahal izateko!

Metamorfosi osokoa da, lau fasekoa, alegia: arrautza, larba, pupa eta imagoa (intsektu heldua). Arrautzak lurrean jartzen ditu emeak eta larbak bertan bizi dira, lurreko substantziez elikatuta. Nahikoa hazi direnean, lur azpian sartzen dira pupa osatuta. Pupa biltzeko ez dute kapulurik egiten (tximeletek ez bezala). Intsektu helduak uda partean ikusi daitezke.

Hegaztiak, narrastiak, anfibioak eta beste artropodo batzuk dira bere harrapakari ohikoenak.

Intsektu bitxi hau Lur planetaren Ipar hemisferioan oso zabaldua dago, nahiz eta Amerikako Estatu Batuetako lurralde zabaletan eta Kanadan ez den bizi. Iberiar Penintsulan oso antzekoak dira *Panorpa communis* eta *Panorpa meridionalis* espezieak. Besteak beste, hegoetako orbanen hedapenak bereizten ditu biak. Munduan 200 espezetik gora ezagutzen dira, eta badira 20 zentimetrokoak ere. Ez gure lurretan, lasai! ●

ZAKILIXUTEN POTROXIMELA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Nori ez zaio gustatzen ahuakatea? Ia denok atsegin dugu fruitu berri hori, di-da amaren batean etxekotu zitzaigun. Zenbat urte da ba dendaero ikusten hasi garela? Gure mahaietara iritsi aurretik, historia luzea du.

Ahuakateondoa amerikarra da, ederki dio bere izen zientifikoak: *Persea americana*. Itxuraz arbasoak Amerikako iparraldearen iparrekoak ziren eta Miozeno eta Pliozeno garaien artean, duela 23 eta 2,5 milioi urte artean hegorantz migratu zuten, orain Mesoamerika esaten diogun lurraldera. Hor bizi da harrezkero, eta bertako biztanleen urte

askotako hautespen lanari esker orain ahoratzen ditugun barietateak edo kultibarrak gozatu ahal ditugu. Mexikoko Puebla estatuan aurkitu dira duela 9.000-10.000 urte ahuakatea jaten zutelako aztarnak. Han bezalaxe esaten diogu guk ere “ahuakate” fruitu horri. “Ahuakate” izena nahuatl hizkuntzatik dator, “*ahuacatl*” hitzetik, zeinak, agi danean, “barrabila” esan nahi baitu. Antzekotasun izugarria dago ahuakatearen zintzilikatze formaren eta zenbait barrabilenaren artean.

Erdialdeko Amerikaren bihotzetik Hegokora eta Karibe aldera eraman zuten ahuakateondoa. Bide horretan bere

langintzan iaiotu ziren Palta herrikoak, Ekuadorren Peruko mugan. Palta hizkuntza sailka ezina eta apenas frogatutakoa hitz egiten omen zuten. Hegoaldeko Inka inperioak bereganatu eta betiko desagerrarazi zuen Palta kultura, baina ez beraien ahuakatea jateko ohitura. Inkei, nonbait, ahuakatea gustatu eta hortik hegoaldera hedatuko zen; izan ere, hango herrietan, Peru, Bolivia, Argentina eta Txilen ahuakateari “*palta*” esaten diote eta ahuakateondoari “*palto*”.

Ahuakatea eta *palta* dugu, beraz, gure dendetako erakusleihoak urte osoz betetzen dituen fruitua. Ahuakatea, barrabila, eta zer ote da *palta*? Academia Mayor de la Lengua Quechuak 2005ean argitaratu zuen *Diccionario SIMI-TAQE*, eta bertan dio *palta* dela “zintzilik eramaten den bilgoa”. Txilen urte askoan lan egin zuen Rudolf Lenz Dazinger filologo linguista eta folklorista alemanak 1904an argitaratu zuen *Elementos indios del Castellano de Chile* liburuan zioen *palta* dela “zutitzeko edo tentetzeko balio duena”. Ahuakateak eta *paltak* antzeko gauza esan nahi dute, zintzilik zama daraman barrabila. Baina *palta* harago doa: eragin zutikorra du.

Ahuakatea esaten dioten Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikaren hegoaldearen tartean dago Kolonbia eta han ahuakate-*paltari* “*cura*”, apaiza esaten diote.

Gurean jaten den ahuakatearen ia ehuneko ehun hass barietate edo kultibarrekoea da. Bere ezaugarri nagusia itxura da: azal zaildu zakar iluna du, zuritzen nekeza eta gaitza, eta zimurra da. Horra duela gutxi asteko lau egunetan zikiratu diguten gure Zakilixut barrabiletakoaren “potroximel”, guretzat ahuakatea. ●



AMILLUBI

LANERAKO, PROIEKTUA ZABALTZEKO ETA KOMUNITATEA EGITEKO AUZO(P)LANAK



GARAZI ZABALETA

Gipuzkoako hamaika txokotatik gerturatutako hamaika lagun elkartu ziren otsailaren 23an Amillubiko lehen auzo(p)lanera. Biolur elkarrekin bultzatutako proiektu kolektiboa da Amillubi, agroekologian sakontzeko eta Gipuzkoako etorkizuneko elikadura erronkei heltzeko asmoz Zestoako baserria eta inguruko lurra erosi dituen. Auzolana eta plana, biak batera proposatu dituzte proiektuaren bultzatzaileek oraingoan. “Auzolanak egin izan ditugu lehenago ere, eta lanak aurreratzeaz gain, Amillubi irekitzeko eta jendeari proiektua ezagutarazteko modu bat ere badira”, azaldu du Marta Barba kideak. Oraingoan, baina, lanera datorrenari beste zerbaite eskaintzen saiatu dira, eta eguraldi ederra lagun izan dute.

LAN HANDIA GIRO EDERREAN

Etxe gaineko aterpea txukuntzea, barrualdea garbitzea, kiwien egitura zaharrak kentzea... lanik ez da falta Amillubi baserrian, eta horietako asko aurreratzeko aprobetxatu zuten otsaileko hitzordua. “Komun lehorrak egiten hasi ziren batzuk, sasiak desbrozatzeko eta zuhaixkak kimatzeko aritu ziren beste batzuk, aterpeko itxitura egonkorra egiten ere bai... astindu handia eman zitzaion gauza askori”, azaldu du kideak. Jendeari erantzunarekin oso pozik azaldu dira antolatzaileak,



Udara bitartean bi hilean behin auzo(p)lanekin jarraitzeko asmoa du Amillubik.

izan ere, 30 lagunetik gora elkartu ziren, eta Gipuzkoa osotik gainera: Goierri, Donostialdea, Urola Kosta, Debagoiena... Aramaioko kideak ere izan ziren.

Ongi egindako lanaren ondotik, modu kadua eta eguneko plan proposamena izan zituzten: etxeko hazitegia egiteko tailerra. “Jakintzak partekatzeko espazioa izan zen, nolabait, eta hazien tru-

kea ere egin genuen”, dio Barbak. Lehen aldi horretan tailerra proposatu dute, baina gerora etor daitezke hitzaldiak, emanaldiak edo bestelako ekimenak. “Azkenean, lanarena garrantzitsua da, baina ekintza hauek proiektua zabaltzeko eta komunitatea egiteko helburuz ere bultzatzen dira”, gehitu du. Hemenik udara bitartean, bi hilean behin auzo(p)lanekin segitzea da asmoa. Amillubiren webgunean eta sare sozialen bidez egingen dituzte deialdiak.

MAIATZEAN UDABERRIKO FESTA

Baserria eta lurra erosteko diru biletak kanpaina buru-belarri aritu ziren iaz Amillubiko kideak, eta honezkeroko kopururaren zati handia eskuratuta duten arren, falta dutena lortzea da aurreko esku artean duten erronka. Proiektuko kideak gogorarazi du diru biletarako ohioko bideak zabalik daudela eta webgunearen bidez dohaintzak egin daitezkeela. Alor ekonomikoaz gain, dena den, bestelako egitasmoak ere badituzte agendan. “Esan bezala, auzoplanekin segituko dugu, Kataluniako zenbait proiektu ezagutzeko bisita ere antolatzen ari gara, eta maiatzaren 10ean Amillubiko jaia izanen dugu”, dio. Egundako festa prestatzen ari direla aurreratu dute, baina horren berri aurrerago izanen dugu. ●

Maurice Ravel jaio zela 150 urte

Eta zuk, egin duzu inoiz Boleroarekin?

Duela 150 urte, 1875eko martxoaren 7an jaio zen Maurice Ravel musikagile eta konpositorea, Ziburun. Mundu mailan ospetsu dira haren lanak, bereziki *Boleroa*. Sarri aipatzen da Parisen bizi izan zela, kontserbatorioan ikasi zuela aro berri bateko irakasleekin, munduko txoko guztietan entzun izan direla bere piezak... Baina inoiz gutxitan nabarmentzen da, euskaraz mintzatzen ez bazekien ere, "txundituta" zeukala Euskal Herriko kulturak.

Erreportajearen abiapuntu izango dugu *Boleroa* konposizio ezaguna, kantu horrek ere baduelako Euskal Herriarekin lotura estua.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Pieza klasikoaren partiturak izandako hedapena ez da ahuntzaren gauerdiko ezutula. 97 urte ditu Maurice Ravel ziburutarren *Boleroa*-k, eta jazzetik hasi eta flamenkoraino, Galiziako gaitatik igarota, pieza beraren bertsio ugari daude zaletu guztientzat eginak. Frank Zap-pa zenak ere egin zuen berea, bertsio rockeroa. *The Best Band You Never Heard in Your Life* disko entzutetsuan sartu zuen, albumaren erdi-erdian. Sarean erreskatatu daitekeen bideo batean ikus daiteke Bartzelonan 1988an emandako kontzertuan, Zap-pak, gitarra utzi, publikoari bizkarra eman eta orkestrako batuta hartuta, zigarroa ahoan, nola gidatzen dituen bere musikariak eta interpretatzen duten, beraien estiloan, Ravelen *Boleroa*. Oso bitxia eta zinez ikusgarria da, pieza klasikoa bera bezalaxe.


Orkestrako kantu ederra da *Boleroa*, hamazazpi minutuko konposizioa. Behetik gora doa *in crescendo*, erritmo eta tempo aldaketarik gabe, *ostinato* argia egiten, melodia bera

obsesibo samarra bihurtzeraino; baina propio egina denez, eta bestelako efektuak apurka-apurka gehitzen doazenez, epikoa izatea lortzen du.

Zineman agerpen asko izan ditu *Boleroa*-k. Famatua da sexu eszenei banda ipintzeagatik, baina eszena beroak bezalaxe, biolentzia uneko edo erasoaldi aurreko pasarteak musikaz janzteko baliatu izan da behin baino gehiagotan, epiko izatearen lirika bere eginda.

Bat aipatzearren, ezagunena akaso, 1979ko pelikula komedia-erromantiko bat da, *10-Emakume perfektua* deiturikoa. Erotismoaren mundu mailako ikur bihurtu zuen Bo Derek emakumezko aktorea. Dudley Moore-rekin ageri den eszena bero batean entzuten da *Boleroa*; apurka-apurka, piezak gorantz egiten duen gisan, protagonisten arteko tentsioa ere *in crescendo* joaten da, pasioz eta erotismoz.

Bo Dereken eta Dudley Moore-ren eszena bero hura, emakumezko aktorearen sexualizazioaren eragile izan



JABETZA PUBLIKOA

ez ezik, Mendebaldeko zinemagintzan erotismoaren eta sexu-pasioaren ikur bilakatu zen. Prentsaren aldetik olatu bat sortu zen, eta Ravelen pieza, antza, “sexu-lagunen musika” bihurtu zen, gutxi gorabehera, mende berria heldu arte. Premisa bihurtu zen galdera bat airean: eta zuk, izan duzu sekula sexurik Ravelen *Boleroa*-rekin?

Pelikula horretan, argi eta garbi, *Boleroa* zen entzuten zena; zeren eta Ravelen piezaren plagio zantzuak ere bisitaratu dira urteetan. Esaterako, Akira Kurosawaren *Rashomon* filmeko kantu bat entzunda, musikaz ezer gutxi dakiena ere ohartzen da *Boleroa*-ren antza handi-handia duela. Nabarmenena eta sona handiena eskuratu zuen kasua horixe izan zen. Dena dela, beste istorio bat da ondorengoa, baina gero, Kurosawaren lana plagiatzea leporatu zioten Sergio Leoneri, *Eskubete dolarren truke pelikulagatik* (jatorrizkoa, italieraz: *Per un pugno di dollari*).

BOLEROA-REN JATORRIA ERE, “SENTSUALA”

Ziburutar konpositorearen sona Frantziako administrazioaren mugetatik harago joana zen 1927rako. Biolinarentzat eta pianoarentzat *Sonata* entzutetsua argitaratu berria zuen, eta sinatua zuen kontratu handi bat, nazioarteko bira egiteko Ipar Amerikatik. Ez zen ohikoa halakorik egitea duela 100 urte.

Atlantikoa gurutzatzeko ontzia hartu baino gutxi lehenago, Europa mailan izena zuen Ida Rubinstein dantzari errusiarraren enkargua jaso zuen Ravelek: konposa zezala “izaera espainiarrun” ballet bat. Lehenago ere lan eginak ziren elkarrekin, eta aurretik Rubinsteinek, Raveli ez ezik, Igor Stravinski konpositore entzutetsuari ere eskatu izan zizkion lan ugari. 1927rako, baina, zortzi bat urte zeramatzan Ravelek balleterako musikarik konposatu gabe. Bestelako lan ugari ere bazituen egiteko, eta inspirazio gutxi zuen, gainera. Nonbaitetik hasi behar izan zuen arakatzeko, behin AEBetatik itzulita.

Parisen bizi bazen ere, Ziburura itzultakoan gertatu ziren ondoren aipatuko direnak, 1928ko udan.

Etxera itzuli zen lehen unetik buruan izan zuen Isaac Albeniz konpositorearekin hitz egitea. Kataluniarra zen sortzez Albeniz, baina guraso gasteiztarrak zituen. Ravelek harekin elkartu nahi zuen, bere *Fandango* –gerora *Iberia* izendatua– obra sakon entzun, aztertu eta Ru-

Boleroa eta Euskadiko Orkestra

Euskaraz ere egin dira *Boleroa*-ren interpretazioak. Besteak beste, Katia eta Marielle Labèque lapurtar ahizpek disko oso bat dedikatu zioten Raveli eta bere obrari, eta nazioarteko bira egin zuten 2017an, Oreka TX, Eñaut Elorrieta eta Thierry Biscary bidaide hartuta. Kalakan taldeak ere badu bertsiorik, txalapartaz eta danborrez lagunduta.

Bereziki, ordea, nabarmentzekoa da Euskadiko Orkestraren azken urteotako lana. Izan ere, bi disko atera ditu Ravelen bueltakoak: lehena 2021ean, haren “alde euskaldunari” begirakoa, eta bigarrena 2022aren hondarrean, “alde frantsesagoari” erreparatutakoa. Biak ala biak daude entzungai plataforma digitaletan. Lehen diskoa zabaltzen du *Bolero* kantu ezagunak.



Ravelen jaiotetxea, Ziburuko kostaldean.

bistein dantzariak egindako enkargua lantzen hasteko. Baina ohartu zenerako, Donostiako Gran Casinoko orkestra zuzendaria zen Enrique Fernández Arbos-ek erosi zituen Albenizen kantuaren eskubideak. Hainbat idatzitan jasotzen denez, atsekabe handiz hartu zuen notiziari Ravelek. Fernández Arbos jaunarengana heldu zen informazio hori, eta berak kontaktatu zuen Ravelekin, esateko baietz, obra hura erabiltzeko baimena ematen ziola –ordurako ez zen edonor Ravel–. Baina plana zapuztutzat emana zuen Ravelek, eta beste bide batzuk urratzen hasia zen.

Epe motz-motzean, baina, arrakastarik ez. Ez zion ezerk konbentzitzen. Donostiako kasinoko Fernández Arbos-ekin solasaldi ugari izan zituela esaten da, melodia errepikakorrek giza-garunean eragiten duten inpaktuaz mintzatu zirela eta abar, eta, antza, handik egun batzuetara, Ziburuko hondartzan zela, inspirazioa etorri zitzaion. Bordeleko Gustave Samazeuilh konpositore eta lagunarekin zegoen hondartzan, bainu bat hartzen, eta halako batean, ziztu bizian, korrika irten omen zen uretatik, etxera joateko –jaiotetxea Ziburuko hondartza ertzean dago–. Eskuak bustita hasi zen pianoa jotzen, eta hortik sortu *Boleroa*.

Ez da, ordea, kontatzen den bertsio bakarra. Beste batzuek esaten dute egun horretan, esnatu orduko eta pijama erantzeko astirik gabe hasi zela konposatzen.

Inspirazio unea modu batekoa edo bestekoa izanda ere, Rubinstein dantzariari gustatu zitzaion proposamena. Horixe zen bilatzen zuena: zerbait epikoa, exotikoa eta erotikoa. Izan ere, orduko topikoek zioten emakume espainiarrak suharrak eta apasionatuak zirela, beroak. Balleteko koreografia-koa ere halakoxea egin zuen dantzariak: teloa zabaltzean, argi gutxirekin eta *Boleroa*-ren erritmoan, tabernako mahai baten gainean egiten zuen dantza Rubinsteinek, hogeigaz inguruan zituela, eserita eta karta-jokoan. Lehen unean ez zen gizonik Rubinsteini begira ipiniko, baina, musika *in crescendo* zihoan heinean, gero eta gizon gehiagok altxatuko zuten begirada. Parisko Garnier Operako estreinaldiak eskandalua eragin zuen gizartearen.

Antzezlan horixe izan daiteke *10-Emakume perfektua* pelikulako Bo Dereken eta Dudley Mooreren eszenaren oinarria, inoiz halakorik esplizituki onartu ez bada ere. ●

"Euskal Herria maite dudan? Euskal Herria baino ez dut maite"

Joseph Maurice Ravel musikagilea Ziburun jaio zen 1875eko martxoaren 7an, eta Parisen hil zen 1937ko abenduaren 28an, eritasun neurologiko baten eraginez. Bere aita ospe handiko ingeniari frantses-suitzarra izan zen, musika afizionatua, eta ama, berriz, euskaldun lapurtarra. Euskaltzalea zen, eta berak erakutsi zizkion semeari Euskal Herriko hainbat kantu zahar. Maurice Ravelek maite zuen Euskal Herriaren ondarea, ama biziki miresten zuelako batik bat, gerora prentsan adieraziko zuenez.

Haurra zelarik, familia Parisera joan zen bizitzera. Musika-ikaske-

tak abiatu zituen oso gaztetatik, eta kontserbatorioan sartu zen nerabetan, 1889an. Garaiko irakaslerik onenak izan zituela esaten da, hala nola André Gedalge eta Gabriel Fauré konpositoreak, korrante kontserbadoreari gus-tatzen ez zitzaion ildo jarraitzen zutenak. Ingurumari horretan hazi zen Ravel, eta garaiko musika inpresionistaren bultzatzaileenetakoa bihurtu zen.

Lehen Mundu Gerra hasi eta berehala hil zen bere ama, 1914an, eta Ravelek ez zuen inoiz gaindituko kolpe hura. Sorterriarekiko gero eta gertutasun handiagoa sentitzen hasi zen, eta lehen baino gehiagotan itzuliko zen Ziburura,

uda sasoian. Bere sormenarentzat egonleku garrantzitsua izan zen Ziburuko etxea.

1929ko irailean, *Boleroa* jendarteratu eta hamar hilabetera, *La Gazzete de Biarritz* egunkariak Ravelekin izandako solasaldi baten zatitxo bat kaleratu zuen lehen orrian. Honela zioen:

"Ez naiz umoregilea. Musikaria naiz. Ez naiz harroputza. Euskalduna den gauza orotan bada musika pittin bat (...) Ea Euskal Herria maite dudan? Esango nuke Euskal Herria baino ez dudala maite. Asko bidaiatzen dut, eta saiatzen naiz lekuan lekukoa izaten. Saia-tzen naiz errusiarra izaten Erru-sian, espainiarra Espainian".



Raveli buruzko hiru erreferentzia



gande goiza da, ari du egunak argitzen eta inor ez dago kalean, festa eguna izanda ere. Animalia burudun orkestraren ardura izango da herria esnatzea. Danbor hots bat entzungo da plazako kioskotik, errepika doto-rean. Haren ondoan txirularia. Klarinetea gero. Eta harpa. Orduan hasiko da jendea plazara gerturatzen. Jarraian, balkoi batetik entzungo da fagota. Errekintoa segidan, eta kontrabaxua atzetik. Erritmo jarraituan, denak ere. Tronpeta jende artetik... eta azkenik, zuzendaria. "Erritmoa gora eta gora zihoan zoraturik, eta gainezka egiten du magiak", irakur daiteke.

Haurrentzako liburu ilustratu honek baditu amaieran QR kode batzuk, *Boleroa*-ren interpretazio on batzuk proposatzen dituztenak. Irakurleari gonbita egiten diote liburua irakurri bitartean musika fondotik entzuteko.

Testua. Jose Antonio Abad.

Irudiak. Federico Delicado.

Argitaletxea. Pamiela.


Maurice Ravelen biografiari estu lotutako liburua da, nahiz fikziozko parte batzuk ere badituen. Konpositorearen bizitzako azken hamar urteak kontatzen ditu Jean Echenoz idazleak, 1927tik 1937ra. Joaquín Achúcarrok hitzaurrean dioen bezala, "beste liburuek asko hitz egiten dute musikaz, eta gutxi gizonaz".

Erabiltzen zituen galtzak, AEBetako bidaiara eramandako 25 pijamak eta 60 alkandorak, maniak eta ohiturak ageri dira liburuan. Atlantikoaz bestaldera egindako bidaiaren kontatzen da nola tutik ere ez duen ulertzen, batere belarririk ez duela frantsesaz besteko hizkuntzetarako, "euskararen salbuespenarekin". Eta, Euskal Herriari egindako beste aipamen bitxi bat bada, Echenoz idazleak honela dio Ravel gaixo-gaixorik dagoenean: "Gauzak beti konpondu ohi dira norbere herrira itzultzen den bakoitzean".

Idazlea. Jean Echenoz.

Itzultzailea. Gerardo Markuleta.

Argitaletxea. Meettok.



Nagore Irazustabarrenak eta Axier Lopezek aurkeztuta, ARGIAren *Oroimen Histerikoa* podcastaren 3. atalean egin zioten tarteoa Maurice Ravelen *Boleroa*-ri, izotz gaineko patinajearen baimenarekin. Ziburutik munduraino, Sobietar Batasunetik igarota. Erreferentzia ugari ditu *Boleroa*-k.

Podcasta. Oroimen histerikoa
Argitaratzailea. ARGIA

Entzun hemen:



PEDRO IGNAZIO BARRUTIA

‘GABONETAKO
IKUSKIZUNA’*Desbergonzadu perroa!
(Belengo estalpean euskañolez)* GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Belendik Mondragoera joan-eto-rrian ibiltzeko aireplanoa zeukan Pedro Ignazio Barrutiak eta mendeetan barrena bidaiaitzeko Delorean-gardia ere bai. Ez da gutxi, kontuan izanda Fagor taldeak konpositeetarako lerroak martxan jarri baino askozaz lehenago bizi izan zela, XVIII. mendean alajaina. Hark idatzitako *Gabonetako ikuskizuna* –jatorrizko titulua gaztelaniaz: *Acto para la Nochebuena*– dugu, Patri Urkizuren arabera, “hegoaldean idatzi ziren antzerkietarik ezagutzen dugun lehen euskal testua”. Baina titulu hori kaiola bat iruditzen zait, porke obra inaugural guztiekin gertatzen da rolo bera: oso inportantetzat jotzen dira eta oso aipatuak dira mota guztietako material didaktikoetan, baina gero testuan ez du nidiosek begirik jartzen, aitzindariaren purutasuna ez zikintzeagatik edo batek daki zergatik.

Eta pena da, ze euskal literaturako testu fundazional gutxi izango dira Barrutiarena bezain sasikoak. Obraren aitatasunetik hasita: Gabriel Arestik

1965ean, beste bi antzezlanekin batera *Gabonetako ikuskizuna* Auspoa bildumako *Teatro zaarra* liburuan jaso zuenean, dudari jarri zuen egilea Barrutia bera ote zen, zenbait pasarte kallejeroegiak iruditzen zitzaizkiolako Arrasateko jaun eskribauaren lumatik atereak izateko. Martin Beltz izeneko koplari batek lagundu omen zuen liburu berean bildutako Sor Luisaren *Gabon-sariak* lana osatzen eta, Arestiren ustez, “posible izango litzake” harexek asmatu izana Arrasaten antzezteko istorio hau ere, “baña eskribitzen etzekian ezkerro, bertako eskribauak eskribitu zion”, eta fedea emateko sinatu. Eta testua berreskuratu zenean, mende bat baino gehiago pasata, eskribauaren sinadura zena autorearena bilakatu, hipotesi arestiarrean betiere –pertsonalki oso hipotesi abentureroa dela uste dut, dena esan behar bada–.

Gero beste kontu bat dago: testu hau ez dela testu huts bat, izan baita ring bat ere euskal *intelligentsia*-ko boxeo izarraren arteko dinbi-danba frankorentzat. Aresti izan zen, dudarik gabe, obraren

defensore inportanteena eta Auspoako berrargitalpenaren hitzaurrean se le nota aurreko ikerlariei –batez ere Azkueri– belarritik tiratzeko gogoa, baita bere garaikoekin –batez ere Lino Akesolorekin– polemizatzekoa ere. Geroago ere sake eta erreto ibili dira gure kritikoak Barrutia dela eta ez dela. Batek –Ibon Sarasolak– *Gabonetako ikuskizuna*-n ikusten bazituen Pirandellok teatroaren mundura askoz geroago ekarritako nobedade formalen aztarnak, beste batek –Patxi Salaberri– freskotasuna aitortu arren, seinalatuko zuen “berez ez daukan modernotasun ukitua” ikusi nahi izan zaiola.


Bibliografia totxo asko dago, hortaz, eta profundizatu nahi duenak erraz aurkituko du nondik heldu. Hau ordea, ez da para nada ikerketa totxo horietako bat, sino ke *Gabonetako ikuskizuna* leitzera animatzeko intentzioz idatzitako zerbait, porke “pena garratz, rabia, tormentu andiak / abrasatzen deust errai guztiak” konturatzen naizenean ze jende gutxik ezagutzen duen; eta, beraz,

ze konklusio ekibokatuak ateratzen diren gaur egun, oi, gure hizkuntzaren erabilera kreatiboez, pentsatzen baitugu euskañolez produktu kulturalak produzitzea gauza apurtzaile, berri eta sekula egin gabekoa dela, asuntua ez tula baino zaharragoa ez dakit, baina oso-oso-oso aspaldikoa izanda, Barrutiaren obrako muestra honetan ikusten denez:

*Txato, mutil lotsagabe,
Desbergonzadu perroa,
Jagi banadi, itxiko deustat
Moltsuarekin aoa*

Euskañolaren kontuarekin buelta eta buelta ibili gintezke Barrutiaren Delorean-gurdira igota, *Basque to the Future*, laudatuz gure literatura zaharrak jada antizipatu zuela berritatz hartua izango zena. Ala alderantzizko operazioa egin, es decir, ikusi nola gure testu berrietan erreproduzitzen den absolutamente tradizionala dugun hautu linguistiko hau. Baina eske kontuak badauka izen zientifiko eta guzti, asike zertarako nekatu: diglosia zen eta da; eta erronka, digo yo, bai soziolinguistikatik eta bai sormenetik, hori gairatzen duen zerbait inbentatzea izango da –eta ez dakit alor horretan ez ote gauden hasiak da goenarekin konformatzen–.

Utz ditzagun kontu horiek eta zentratu gaitezen Barrutiaren aireplanoan, en el cual –joder, askoz *naturalago* horrela “zeinean” jarrita baino– despeinatu gabe bidaiatzen duten protagonistek Belendik Arrasatera, joan eta buelta,



Jesus, Maria eta Jose *included*, biaje teatral lisergiko batean, non ez diren falta aingeruak, Luziferren kuadrilla osoa eta pertsonaia pikaro bat, momentuaren arabera Gracioso izan daitekeena edo Matxi Ardantza edo Txarles Tripazabal –eta behin gauza modernoak bilatzen hasita, pertsonaiaren mutagarritasun horrek Leos Caraxen *Holy Motors* pelikula ekarri dit gogora–.

Eszenariotik paseatzen direnen artean hura da, sindudarik gabe, jokurik handiena ematen duena, badauzkalako, esandakoa, nobela pikareskoko karakteristikak, baita *Gargantua eta Pantagrue*l-en aire bat ere –tripazalea, eskatologikoa, agertzen diren guztien

artean korporalena–, ahaztu gabe antzezlaneko momentuak batean jokatzen duen papera: deabruak bera jipoitzen hasten direnean emazteari laguntza eske joaten da, baina honek, Mari Gabonek, ataka horretan dagoen senar mozkortia –eta itxura guztien arabera proxeneta, izan ere, ardo truke “saldu jok egun / Emaztearen moldea”– ikusirik, mendekua hartzea erabakitzen du: “Orain jaukat neure aldi. / Galdu nok eta gal adi” esan, eta senarrari erremateko ostiak ematen dizkio Mari Gabonek.

Biktimarena egiten hasiko da orduan Matxi Ardantza: “Adi ezazu, mundua, / Ze modutan emaiten dauen / Emazte onak pagua”. Baina mingain zorrotzekoa dugu Mari Gabon ere: “Munduak aditu begi: / Senar gaizak emazte ona / Esperadu ezpegi!”. Durisimas declaraciones,

demonstratzen dutenak hizkuntzaren mugak eta fikzioaren espazio-denbora unitateak ez ezik, *Gabonetako ikuskitzuna*-k kolokan jartzen duela maitasun erromantikoa bera ere. Baloratu beharreko lorpena sin lugar a dudas, kontuan hartuta erromantizismoa mende hartako bukaerara arte ez zela hasiko espantuka. Enfin, gauza hauek guztiak kontuan hartuta, fuerza da konklusio honetara iristea: Barrutiak gauza asko aurreratu zituela duela 300 urte inguru. Edo duela 300 ingurutik ez dugula askorik aurreratu. Segun eta ze aldarterekin esnatzen naizen, interpretazio baten edo bestearen alde lerratzen naiz gehiago. ●



Hitz gezidunak

ADORE ----- KAUTXU LANDAREEN LIKIDO ZURIXKA	↖	ERRENKA- DAN, HUTSARTE- RIK GABE ----- Txo	↖	ZOTZ	 DANI BLANCO / ARGIA	INDAR GUTXIKO ----- LISKAR	↖	OGIDUNA ----- PERTSO- NAIAREN ABIZENA	↖	ZIKLOI TROPICALA ----- ALAFEDE!	↖	
↗		↘		↘		↗		↘		↘		
LOGOTIPO ----- PARE BAT	→						APALA, XUMEA ----- BELDUR BIZIA	→				
↗		IDI, HITZ ELKARKETAN ----- ASMAKARIA	→			1501, ERROMATAR ZENBAKIZ ----- ESKUMENA, BOTEREA	↖					
LASAITASU- NEZ ----- AURPEGI, BEGITARTE	→	↘			↘			ERREGE HINDUA ----- ADAXKAK SORTU	→			
↖				TRIANGELU ----- NAFARROAKO HERRIA	→			↘		AUZITEGI NAZIONALA ----- ZOR ZENA EZABATU	→	
EMANKIZUN	ITXURA ----- PERTSO- NAIAREN IZENA	→		↘		TXARTO ----- PERDIGOIA	→			↘	ALAI	
↗	↘					↘					↘	
IKUSI (LA- BURDURA) ----- ESNEGAINA	→		AUKERA, EGOKIERA ----- SUBSTANTZIA KANTITATE	→			HAURRA- REN NEGAR ZOTINA ----- DOLU, GARBAI	→				
↗		↘			HUTSA, ERRUA ----- KAZETA	→			NONDR ATZIZKIA ----- S HIRUTAN	→		
JATORRI ----- ZERBAITEN ANALISIA EGIN	→				↘		ITXURA ----- TONA	→			ROENTGEN ----- RHEBUS FAKTOREA	
↗					↘						↘	
								ALABAREN SENAR	→			

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8	3				9	4	
9	2		3		5	7		
4	6		8		9	3		1
	9	2	5			6		
5	3	7		8			1	
					3			8
					8	4		7
3	7	8				1	6	2
			7				9	3

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Arretaz begiratu.
2. Baranda babesgarri.
3. Zuhaitz mota.
4. Zigilu.
5. Bizitasunik gabe.

EBAZPENAK

7	8	3	1	6	2	5	7	8	6
9	2	1	3	4	5	7	8	6	6
4	6	5	8	7	9	3	2	1	
8	9	5	2	1	7	6	3	4	
3	5	3	7	4	8	6	2	1	9
1	4	6	2	9	3	5	7	8	
2	2	1	9	6	3	8	4	5	7
3	7	8	9	5	4	1	6	2	
6	5	4	7	2	1	8	9	3	

[illegible]



Arreta galdu barik

UXUE GUTIERREZ LORENZO EUSKALTZAINDIA

ERREALITATEAREN HARRIBITXIAK

NORK: Josu Iriarte, Nerea Lizarralde, Jare Torralba eta Amets Larralde. Mikel Martinezek zuzenduta eta Jokin Oregiren testuetatik abiatuta.

NOIZ: otsailaren 21ean.

NON: Bilboko 7 katu gaztetxean.

Otsailean, Bilbon, antzerkizaleen artean zita berezia errotu da azken urteetan. Zazpikaleetako hainbat gunetan Lautan Hiru antzerki jaialdia antolatzen dute ostegunero. Zazpigarren edizioa dute aurtengoa. Espazio batzuk urtetik urtera egonkortu dira, eta bidean batu zaizkie beste zenbait. Edizio honetako hirugarren osteguna dute gaurkoa, eta antzerkizaleok zita bikoitza dugu, jaialdiaren agertoki klasiko bihurtu diren bi espaziotan: lehena, 7katu gaztetxean (*Errealitatearen Harribitxiak*). Bigarrena, erronda kalean metro batzuk aurrera eginda, Bira kulturgunean (*Buruaz norbere egin*). Aurten, gazteek egindako antzerkiari erreparatu diote antolatzaileek. Toki falta tarteko, lehenengo emanaldiaren bueltan josiko dut testu hau.

Azken minutura arte ibili da jendea gaztetxera sartzen, eta emanaldia hasi aurretik Mikel Martinez zuzendariak azalpen labur bat eman digu. *Errealitatearen Harribitxiak* ikuskizuna 7katu gaz-

tetxean ondutako sormen prozesuaren emaitza da, eta gaur dute estreinaldia. Jokin Oregiren testuetatik abiatuta "irakurketa dramatizatu" eskaini digute Josu Iriartek, Nerea Lizarralde, Jare Torralbak eta Amets Larralde.

Hala dio emanaldiaren hasierak: "Artistek antz handia dute urte bila ibiltzen ziren horiena, artistek urte bilatzaile haien pareko galbahe moduko bat erabiltzen dute errealitatean ezkututzen diren harribitxiak agerian uzteko". Hortik abiatu da pertsonaia salda, arreta galtzeko paradarik ematen ez duen askotariko errealiteen sorta.

Eszena, pertsonaia eta sentsazio sorta zabala eskaini digute lau aktore gazteek. Izan dira Bittor, Elene, Elena, Idoia, Libe, Rosa, Ester, Maximiliano azeria, trikua, aktorea... Ikusi ditugu triste, pozik, nekakuta, etsita, desesperatuta, galduta... Hausnartu dute arteaz eta desastreaz, antzerkiaz eta antzezteaz, Bilboz eta Bilbao, egia borobilaz eta zalantzez...

Papera eskutan dute laurak, baina, erabat barneratuta dute irakurraldia. Batek irakurri, besteak antzeztu. Lauak batera antzeztu. Testuak irakurrita, pertsonaia batetik bestera igaro dira aktoreak, gorputz jarrera, aurpegiko keinuak, ahotsaren bolumena eta intentzioa egoerara moldatuz. Erregistro aldaketa izugarria erakutsi dute lau gazteek, eta oholtza betetzeko gaitasun handia. Tarteka musikaz ere jantzi da emanaldia: Hertzainak, Anari eta Maixa eta Ixiar izan dituzte bidelagun ikusleek eta aktoreek. Baita Lete eta Laboa ere.

Ikusleak erne segitu dio irudi sekuentziari, hurrengoaren zain eta arreta galdu barik. Ordu erdian zenbat minutu kabitzen diren. Dena eta ezereza, heriotza eta bizitza, maitasuna eta gorrotoa, esana eta kontraesana... Horiek denak topatu nahi dituenak, aurkituko ditu emanaldi honetan. Ikusi nahi duenak, hori bai, aurrrerantzean Karin Karan izenpean bilatu beharko du errezitaldia. ●



LIBURUA

Dramaturgoen 'herstory'-rako



UEU

ROSVITA. TEATRO-LANAK ENARA SAN JUAN MANSO

UEU / EHU, 2024

 AMAIA ALVAREZ URIBEA

Enara San Juanek UEUrekin latinetik euskarara ekarri ditu X. mendeko moja alemana zen Rosvitaren teatro-lanak. Gandersheimeko abadian bizi zen idazlea zen Rosvita: lehen teatro-gile kristaua eta orduko emakumearen irudikapen literario ezkorra aldatzen ahalegindu zen lehena.

Antzezlanekin batera legendak eta lan historikoak ere idatzi zituen. Guztietan oinarri berbera dago: santu eta martirien bizitzaren berri ematea edo enperadoreari eta abadiari gorazarre egitea. Horretarako, testu erlijiosoak, autore garaikideen obrak eta ahozko tradizioa izan zituen iturri eta eredu.

San Juanek egindako sarreraren irakur daitekeenez, bere ekarpen eta berrikuntzak bi izan ziren: batetik, komedia latindarra Erdi Aroko ideologia kristauaren balioetara egokitzea, hots, ha-

giografiaren dramatizazioa egitea; eta bestetik, emakume kristau garbia protagonista bihurtzea, femeninoan idaztea eta patriarkatuari barre egitea.

Ezkontza ukatu, bortxaketei buruz hitz egin eta ahizpatasuna agertu zuen bere lanetan, aditu feministen arabera. Terentzioren komedien moralitasuna kritikatzeko ironia erabili zuen. Hala ere, Gandersheimeko abadian eta Oton-darren gortean soilik izan zuen eragina bere garaian.

Hitzaurrea ederra da. Bertan agertzen da bere ahots ahaldundua. Bere buruari "Gandersheimeko Aldarri Indartsua" deitzen dio eta amaieran hurrengo dio: "Nire debozio hau (...) ez bazaio inori atsegin, niri neuri, behintzat, balio dit egindakoak".

Sei antzezlanetatik gustatu zaizkidanak lehen hirurak dira. Berezik

azpimarragarriak *Galikano armada-jeneralaren konbertsioa*-n aita eta alabaren arteko elkarriketa (Galikanoren ezkontza eskearen ostean alabak ez du ezkondu nahi); *Agape, Kionia eta Hirena birjina santuen nekaldia*-n Dulziziok eltze, lapiko eta zartaginekin amaituko du txortan, birjina kristauekin egin beharrean; eta *Drusianaren eta Kalimakoren berpiztea*-n Androniko jaunarekin ezkontuta dagoen baina kristau birjina den Drusianarekin maiteminduta dago Kalimako, eta haren maitasunaren berri ematean Drusianak maitasun hori auzitan jarriko du.

Gustatu ez zaizkidanak izan dira kristautasunaren alderdi fanatikoak, martirien torturak eta emakumeen sakrifizio eta nekeak, zeinak nagusi diren hurrengo hiru antzezlanetan. ●



MUSIKA

Bizirik eta bidean gaudela ospatu



J.A. ARETA GOÑI 'JUXE'



BIDEA DA HELMUGA

KOKEIN

BALAUNKA, 2024

IKER BARANDIARAN

Eibarko rock talde beterano hau familia oso desberdinetako lagunek osatu zuten aspaldi eta ia fisurarik gabe hamarkadatan eutsi dio. Izan ditu atsedanak, gorputzak hala eskatu die-nean, eta *impasse* horietan taldekideek izan dituzte bestelako proiektuak, horiek ere oso interesgarriak.

Lagun taldeak ia denbora-pasarako sortutako bandak mende laurdena bete du, eta elkartzea eta musika idatzi eta plazaratzea gustuko dutelako daude, gaur egun, inoiz baino sasoitsuago, motibatuago eta, zergatik ez, gazteago.

Gainera, Kokein bada nolabait Eibarren azken hamarkadetan izan diren taldeen arteko haria; bai behintzat Julio Kageta-ren garaitik gaur egunera artekoa. Horregatik, ez da harritzekoa

mende laurdena betetzeko disko berezi honetan, "bizirik" daudela ospatzeko efemeride gogoangarrian, herri bereko hainbat belaunalditako musikariak parte hartzera gonbidatu eta guztiek baiezkua eman izana.

Hala, proposamena aberatsa bezain originala da. Lanak hamar kantu batzen ditu guztira; bost pieza berri, taldeak interpretatuta; eta beste bost, aipatutako beste musikariek Kokeinen kantutegia berrikusita. Eibarko taldeak beti izan du rocka oinarri, gitarreroa, indartsua eta aldi berean itsaskorra. Baina bere baitan kolore desberdin eta ñabardura asko batu ditu; hala, beti aske izan dira probatzeko eta esperimentatzeko. Hala izan da honakoan ere: *Bidean goaz* itsas-

kor eta alaia da jantzi elektronikoarekin. *Gauzez*-ek dauzka, besteak beste, U2ren kadentzia eta Patti Smith-en bizigogoaren hatsa. *Garaia da*-k urgentziazko rocka, ilunagoa eta QOTSAren eragina batzen ditu. *Zure bila*, aldiz, erritmo funkyekin dotoretutako pieza dantzagarria da. Eta *Zutik* kantu itsaskor eta hunkigarria.

Bertsioei dagokienez, xuxurlatu dute Miren Narbaiza, Ander Mujika eta Joseba Baleztenak; Therapy?-ren ingurunera eramanez metal eta rockaren arteko oreka lortu du Eraso!-k; guateketarako moldaketa jostaria egin du Mursegok; goxatu elektronikoa eskaini digu Nakar talde gazteak; eta eibartarra ez, baina Kokein-en ahaide zuzena den Zea Mays-ek ere bere marka utzi du. ●

Espektakulua AEBetan; espantua eta armak Europan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Oscar bat merezi duzula iruditzen zait. Bai, zuk. Ei, eta zuk ere bai. Eta hango hark. Bale, eta ondoan zaudenak, zuk ere jasoko duzu. Zer arraio, denok jaso beharko genuke Oscar bat, ikusten ari garenak ikusita mundua erdi-normal balego bezala jokatzeko jarraitzen baitugu, Stanislavski metodoan trebatutako aktoreak bagina bezala.

Goiasmo teatral horiek alde batera utzi zituzten joan ostiralean Trumpek eta Vancek Etxe Zurian. Azken finean, Stanislavski ez, Zelenski komedianta ohia zuten bisitan. Gaur egungo ikus-entzunezko produkzioen erregistroa eskatzen zuen egoerak. Eta Netflixeko ekoizleei hainbeste gustatzen zaien zer-bait izaten bukatu zuen: *What the Fuck* momentu bat oparitu zioten nazioarteko komunitateari.

Espektakuluak ikusleak izan ditu, hori ezin uka. Baina kritika, tira, ez du oso alde izan. Badirudi dena hankaz gora jarri dutela usamerikarrek. Segun eta norainoko espantua egin nahi duen zutabegileak, irakur dezakezu 1945. urteaz geroztik osatutako ordena internazionala pikutara joan dela; edo 1648ko Westfaliako bakean ezarritako printzipioak ere kolokan daudela –nazioarteko harreman modernoaren oinarriak uzkia igurtzeko material bihurtu direla, alegia–. Gauzak horrela hartuta, aitor dezagun, beldurñoa ematen du, XVII. mendearekin

alderatuta, aldamenekoa tripa-azalak airean uzteko tresneria asko findu baita –geroxeago hitz egingo dugu puntu horretaz–.

Baina lasai. Europan gaude. Eta Trump 2.0ren desplante honen aurrean, mezu bat hasi da Berlindik Madrilerainoko hedabide seriozentratueta agertzen: “Europarrok ez dugu AEBek bezala bukatu nahi”. Aber, gezurra ez da, nik uste. Baina, batetik, Europaren ideia txatxi batekin datozkidanean beti akordatzeko naiz Belgikak Kongon egindakoez; eta Frantziak Aljerian; eta Erresuma Batuak Indian; eta Alemaniak... ejem, bueno, badakizue. Zerrenda gaur goizera arte luzatu dezakezu, Gazako genozidioan EBk dudarik gabe merezi duen Oscarreraino. Kritika onegiak ditu kontinente zaharrak, bere atzaparrekin lepoa bihurrituta akabatu duen jende kopuruaz pixka bat akordatzeko hasten bazara.

Bestetik, yankiak bezain ezjakin, biolento eta zabarrak ez bihurtzearen

ideia horri garapen pixka bat eskatzen diozunean, zelofanezko paper askoren azpian –ilustrazioko pentsalarien star system osoa berreskuratzen dizute okasiorako–, segituan hasten dira asuntuko batekin mailuka: armagintzan gehiago inbertitu behar dutela Europako estatuek, Darth Vaderren babes orain kolokan dagoenez.

Beste era batera esanda, AEBek bezala ez bukatzeko, AEBek bezala ipurtzulo-raino armatu behar dugula, horretarako hainbeste inporta ez duten kontuak –osungintza, hezkuntza, babes soziala oro har– alde batera utzita, AEBetan egiten duten bezalaxe. Joine, politika redneck estatubatuarraren alternatiba izateko, bueltan-bueltan kontuak antzeko samar ateratzen zaizkigula iruditzen zait, Kanye West kendu eta Eurovision jarrita.

Joan den ostiraleko *cliffhanger*-a ikusita, hurrengo kapitulueta edozertarako prest dago publikoa; eta, botepron- toan, zeozer argi samar badago, zera da:

Mario Draghiren txosten famatuaren ondoren Europa berrindustrializatzeko turboa jartzen denean, faktoria militarren alde jakatuko duela geopolitika ziklotimiko honek, armak saltzeko osagai oso garrantzitsua produzitzen baitu: ikara –batzuetan benetakoa, besteetan antzeztua–.

Pelikularen gidoia lehenagotik irakurrita zeukaten zenbaitek, nik uste: Zedarriak taldearen txostena askoz hobeto ulertzen ari naiz orain. ●



Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

Lagundu sare
libreari eusten:

argia.eus/eginargiakoa

 **ARGIA**

Desinformazioari aurre egiteko.
Ezkerreko ikuspegi batetik,
Euskal Herri kritiko, konprometitu
eta euskalduna elikatu nahi dugu.



BOSQUES DE MEMORIA

Memoriaren basoak

2025.02.22 — 2025.05.11

SAN TELMO MUSEOA

ERAKUSKETA

María Rosa Aránega, Taxio Ardanaz, Clemente Bernad, Archivo C.A.D.A., Archivo Graciela Carnevale / Tucumán Arde, Alán Carrasco, María Amparo Gomar Vidal, Patricia Gómez, María Jesús González, Iñaki Gracenea, Miriam Isasi, Concha Jerez, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, Jone Loizaga, Anna López-Luna, Amaia Molinet, Ana Teresa Ortega, Juan Pérez Agirregoikoa, Cristina Piffer, Paloma Polo, Pere Portabella, Txuspo Poyo, Paula Valero, Hugo Vidal